# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-04-30
EGUENA
637. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Eskualdeko nepaldarrak oso kezkatuta lurrikararen ondorioengatik | 3

## Elgetako argazki artxiboa osatzen hasi dira | 21

Arrasateko kalezain "langilea, zuzena eta zintzoa" hil da | 8



Kalebarren itxita izango da hil bukaerara arte, obrengatik | 19



Aurtengo Atxorrotx eguna Gurutze Santuaren egunean, domekan | 18



# Erreleborako gertu

Leintz Gatzagan hautagaitza bakarra aurkeztu da hauteskundeetarako | 5

**Eugenio Otsoa alkatea eta Eneka Zankada alkategaia, udaletxe aurrean.**

JAGOBA DOMINGO




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Asier Altunarekin zinemaz eta arrakastaz**

**Erreportajea lan-esparrua euskalduntzeari buruz**

JASO' PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK


**'Kontrapas' abestiaren lezioa** | 6
OSKAR ELIZBURU

6 | **Dabilenari gertatzen zaio**
XABIER URZELAI

**Jokaera berritzaileak** | 9
OSCAR RODRIGUEZ

13 | **Etika**
PEDRO GARITANO

**Bizikleta** | 15
AITOR UGALDE

16 | **Amets egitea da bidea**
HECTOR PRIETO

**Alde onean** | 32
MIKEL IRIZAR


# Prekarietatearen aurka, mobilizazioak

Sindikatuek protestak deitu dituzte Maiatzaren 1erako

Sindikatuek protesta egitera deitu dute Langileen Nazioarteko Egunaren bueltan. Debagoienean Oñatin eta Arrasaten izango dira mobilizazioak, LABen eskutik. Gainontzeko sindikatuek, berriz, hiriburuetara joateko dei egin dute. Hori bai, guztiek bat egiten dute prekarietatearen kontra borrokatu beharrarekin. Langile askoren baldintzek ere erakusten dute hori. | 2







DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 7 | KIROLA 22 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

# Oñatin, Eibarren eta EAEko hiriburuetan mobilizatzera deitu dute sindikatu nagusiek

▶ Prekarietatearen eta krisi ekonomikoaren aurka protestan egitera deitu dute langileen elkarteek

▶ Bailaran ekintzak antolatu dituzte Ernaik eta LABek; besteak beste, agerraldia eta mural margoketa

**L.K. / U.M.** | DEBAGOIENA

Prekarietatea, eskubideen alde borrokatu beharra, lan baldintza duinak, lanerako eskubidea, austeritatearekiko kontrakotasuna… salaketa eta aldarrikapen horiek hartuko dituzte bihar, Maiatzaren 1a, Euskadiko hiriburuetako eta herri askotako kaleak.

Debagoienean, Oñatin daude mobilizazioak deituta, Ernairen eskutik. Besteak beste, *bazkari prekarioa* egingo dute gaztetxean, 14:30ean. 16:00etan, *Gazteondako lan eskubideen gida* aurkeztuko dute, eta 18:00etan manifestazioa, Foruen plazatik abiatuta.

### LAB, Eibarrera

Horrez gainera, Arrasaten murala margotuko dute, 18:30ean, kasu horretan, LAB sindikatuak deituta. Prentsaurrekoa egin zuen asteartean Arrasaten. "Euskal Herria aldaketa bidean da, borrokan gauden langile guztioi esker!", esan zuen Jose Ramon Kortabarria *Moztu*-k. "Borrokak egin gaitu, borrokan jarraitzen dugu, eta, hain zuzen ere, aurtengo Maiatzaren Lehenean borrokan diren langileen protagonismoa eta ekarpena aitortu eta aldarrikatuko dugu".

Borroka sindikalaren premia aldarrikatu zuen: "Euskal sindikalgintzak harresia jarri dio euskal langileen kontrako erasoari".

Aurten, egun berezia izango da, gainera; izan ere, LAB sindikatuaren sorreraren 40. urteurrena beteko da. Hori horrela, manifestaldiaren ondoren, eskualdeko LABeko militante historikoei omenaldia egingo diete eta 15:00etan herri bazkariarekin emango diote amaiera egunari.

Eibarrera joateko dei egin dute, beraz. Auto karabanan aterako dira, 11:00etan, Garibai etorbidetik (Arrasate). 12:00etan, kale-agerraldian irtengo dira Eibarko Untzaga plazatik.

*Prekarietatearen kontra Euskal Herria borrokan!* leloa aukeratu dute LAB, Ernai eta Sortuk.

### ELA, Bilbora

ELAk *Prekarietateari ez!* lelopean egingo ditu aurtengo mobilizazioak. Bilbora joateko dei egiten dute Debagoieneko ordezkariek; 100 bat lagun joango dira bailaratik Bilbora, kale-agerraldian eta ondorengo bazkarian parte hartzera. Jesusen Bihotzean 11:00etan mitina izango dute, eta 12:15ean, kale-agerraldia.

ELAren esanetan, oraindik "erronkaz beteta" daude "oraina eta geroa", eta testuinguru horretan ELAk "gorazarre egin nahi die bere militanteei".

### CCOO eta UGT

CCOO eta UGT sindikatuek batera egingo dituzte ekintzak, *Así no salimos de la crisis* leloarekin. Honako kale-agerraldi hauek deitu dituzte: Bilbon, Kale Nagusian hasita, 11:30ean; Donostian, Argentinar Errepublika kaletik Bulebarrera, 12:00etan; eta Gasteizen, berriz, Andre Mari Zuritik hasita, 12:00etan.



UBANE MADERA

**GREBAN** Andoni Elexalde aramaioarra apirilaren 8az geroztik da greban, mugagabe. Hain zuzen, Movistarrek 2015erako planteatutako kontratu merkataritza dela-eta, horrek dakartzan ondorioak salatzeko: "Urtebetez enpresa batendako langile pribatu moduan lanean ibili ostean, 2014an behartu gintuzten autonomo izatera. Beraz, pasatu ginen enpresako autoa, telefonoa, erremintak... izatetik, halako ezertxo ere ez izatera, norberak ipini ezean. Horrek eraginda, baditut lankide batzuk beharrezko segurtasun neurri barik lanean dihardutenak... Gainera, behartuta gaude 10-12 orduko lan jardunak egitera soldata duina lortzeko. Horrek eragotzi egiten digu beste edozein lan egin ahal izatea autonomo modura".



U.M.

**PREKARIOAN** Lanean dihardu Bettina Mora argentinarrak. "Baina egunean hiru orduz bakarrik, eta oso gutxi ordaintzen didate orduko", esan du. Krisiaren ondorioak zuzenean sufritu behar izan ditu: "Hamabost urte daramatzat penintsulan, eta bi Euskadin. Madrilen enpresa pribatu batendako lan egin nuen ia zortzi urtez, modu finkoan. Baina krisia etorri zenean eta kaleratze baldintzak flexibilizatu zituztenean, bota egin ninduten, eta oso kalte-ordain txikia ordainduta. Berez, erizain laguntzaile titulua daukat, baina homologatu barik, eta hemen euskara ere behar dut. Beraz, ikasten eta ikasten nabil. Luxua da hori [ikastea], senarra lanean izateari esker dudan luxua. Beste etorkin batzuk askoz ere okerrago daude".



LABeko ordezkariak prentsaurrekoan, Arrasaten . | IMANOL BELOKI



LAB

**BERGARAN** Hitzaldia egin zuten Bergaran Joseba Permachek (Sortu) eta Mikel Saralegik (LAB). Europako Batasunak eta AEBek sinatutako Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmen Transatlantikoa baztertu zuten.



L.K.

**GAZTEA** Ingeniaritza Mekanikoa eta Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Kudeaketa masterra egin ditu Mikel Saizek. Orain, lau orduz enpresa baten dihardu, masterrarekin zerikusia duten lanak egiten. Horrez gain, aseguru-artekaritza baterako lan egiten hasi da kolaboratzaile gisa. Libre duen denbora ikasteko erabiltzen du. Oso pertsona ekintzailetzat du bere burua, eta artekaritza horrek Euskal Herrian izango lukeen lehenengo bulegoa ireki gurako luke. Datozkion aukerei gogoz eusten die Mikelek: "Egoera ikusita, are gehiago. Inguruko jende gehiena lanean dago, baina gehienak aldi bateko kontratuekin".

## Ika-mika politikoa, atez ateko bilketa kostua dela-eta

**U.M.** | DEBAGOIENA

Eztabaida sortu da alderdi politikoen artean Herri Kontuen Epaitegiaren txostenak jasotakoaren ondorioz. Txostenak dio Debagoienean %104 hazi dela hondakinen bilketaren kostua, herri batzuetan atez ateko sistema ezarrita.

"Bilketa-zerbitzuaren kontratuan egindako aldaketen ondorioz, 5,4 milioi euroko kantitatetik 11,06 milioi eurora iritsi ziren", dio Debagoieneko EAJk, aldaketak Oñati, Eskoriatza eta Bergaran atez atekoa ezartzearen ondorioz etorri direla adierazita. Eta, besteak beste, 2012az geroztik egiten dabiltzan bost salaketa berretsi dituzte: "Zazpi milioi eurotik gorako inbertsioak egingo dira, baina ez dakigu zertarako izango diren. Ez dituzte guztizko gastuak ezagutzen, lantzen ari diren txostenean adierazten den moduan. Ez dakite zenbateko kostua edukiko duen ezarpenak; hala ere, egin egingo dute. Aurreikuspenak ez dira errealak. Ez dira beste eredu batzuekin alderatu edo egiaztatu. Ez dakite nola jasoko diren; ez dago bilketa-logistikarik".

Oscar Gartzia sozialistak, berriz, salatu du 20112013 aldian %27 handitu zela Debagoieneko udal bakoitzak mankomunitateari egin beharreko ekarpena. Eta sozialistek diote, besteak beste, kontuan hartu behar dela aurreko agintaldiko Hondakinen Plana ez betetzeagatik GHK-k 90 milioi euro ordaindu beharko dituela.

### Tasa baxuena

Salaketei erantzunez, hondakinen bilketa kostua %104 hazi dela horrela dela onartzen du Mankomunitateko Ingurumen batzordeko buru Leire Egañak, baina argi uzten du herritarrek ordaintzen dutena ez dela bilketaren kostuaren araberakoa bakarrik, tratamendu kostua eta birziklatutakoagatik izandako diru-sarrerak ere hartzen direla kontuan. Horrela, 2011tik 2014ra tratamendu kostuak 635.000 euro, %27, jaitsi direla eta birziklatutakoagatik izandako diru-sarrerak 412.000 euro, %59, handitu direla adierazi du, eta herritarrek ordaintzen dutena ingurukoen artean tasa baxuena dela. Egañak zentzu horretan dio ekarpen hori handitu egingo zela atez atekoa ezarri ez balitz ere, edukiontziekin jarraitzeko edukiontziekin tan zein kamioi eta bestelakoetan egin beharreko inbertsioengatik. Bestalde, etorkizuna hipotekatu izanaren salaketari erantzunez, Egañak dio GHK-ko orduko administrazio kontseilua izan zela Gipuzkoa hipotekatu zuena, errauskailuaren gaineko erabakiekin.

# Nepaleko biktimen alde mobilizatzen hasi dira eskualdeko nepaldarrak

## Han diren mendizale oñatiarrak lokalizatuta eta onik daude, epizentrotik urrun harrapatu ditu lurrikarak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Eurak hemen bizi arren, bihotza eta begiak jaioterrian dituzte Debagoieneko komunitate nepaldarra osatzen duten lagunek. Kezka handiarekin jarraitzen dabiltza handik iristen zaizkien albisteak, hona etortzean han utzi zituzten-eta senideak eta lagunak: "Zorionez, gure ezagunetatik inor ere ez da hil lurrikaran, baina gure gurasoak eta lagunak han bizi dira, eta lurrikara gertatu zenetik [zapatua] kalean daude. Ez dago urik, ez dago janaririk, medizinak behar dira, guztia dago apurtuta hiriburuan eta herri txikietan... eta gainera, oraindik ere jende bila dabiltza, horrenbestez...", esan dute Suraj Subedik eta Ramesh Raj Paudelek.



Ramesh Raj Paudel, Tilak Khadka eta Suraj Subedi. | UBANE MADERA

### Laguntza batzen hastekotan

Bada, egoera horren aurrean, eta ezustekorik ezean, atzo iluntzean (eguaztena) biktimen aldeko ekimena egin zuten Arrasaten. "Ohitura da kandelak piztea, eta, hain zuzen ere, horixe egingo dugu; eta horrekin batera, hango argazkiak erakutsiko ditugu eta hango egoeraren berri emango dugu", jakinarazi zuten; izan ere, "han ezin da ezer egin, eta munduak lagundu egin behar du", diote etsipenez. "Gure gurasoak han daude, ume txiki mordoa dago kalean, beldurtuta daude uneoro; gainera, egunotan euria egiten dabil eta oraindik hotz egiten du...", gaineratu dute Subedik eta Raj Paudelek.

Horren harira, aztertzen dabiltza Debagoienean ere laguntza batzen hastea eurak; zerbait antolatzeko aukera baldin badute, jakinaraziko dute nora eta zer eman daitekeen.

Debagoienean diren nepaldar gehienak Arrasaten bizi dira. Hogei bat dira, eta pare bat urte daramatzate eskualdean. 26-28 urte bitarteko gazteak dira, batzuk bakarrik etorri direnak eta beste batzuk euren seme-alabekin.

### Oñatiar mendizaleak

Bestalde, Nepalen diren euskaldunen artean, lau oñatiar ere badira: Mitxel Muxika, Anton Txintxurreta, Leo Txintxurreta eta Txaro Letamendi. 55-65 urte bitartekoak dira, eta joan den martxoaren 25az geroztik daude Nepalen, trekking egitera joanda.

Zorionez, onik daude oñatiarrok, Tere Agirrek, Mitxel Muxikaren emazteak, esandako moduan: "Katmandutik 200 bat kilometrora daude [Pokharan], lurrikara-gunetik urrun, eta horri esker onik dira. Telefonoz eurekin egon berri naiz eta etengabe gaude harremanetan. Hiru trekking egitera joanda zeuden eta bi eginda dituzte. Deskantsuan zeudela harrapatu zituen lurrikarak. Ekainaren 10en etortzekoak ziren, eta, momentuz, dauden lekuan geratuko dira. Delhiko Espainiako kontsulatuarekin harremanetan jarri ziren eta esan diete trankil egoteko, une honetan beste lehentasun mordoa daude-eta han; beraz, orain pittin bat itxaron beharko dute. Eta bueltari dagokionez, ba, ez dakigu zelan eta noiz izango den".



Ugarte eta Altube Oñatin, martitzenean. | M.A.

# Erantzukizunak eskatu dituzte AP-1aren auzian

## 100 bat lagun izan ziren Ugarte entzuten

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Bidegiren gaineko albisteak ugarituz doaz azken egunotan, eta horren gaineko argibideak eman gura izan zituzten Oñatin Aldundiko ordezkariek, Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak eta Joseba Altube Bide Azpiegituretako zuzendari nagusiak. "Irregulartasun larriak" salatu zituzten eta azalpenak eskatu zizkieten Markel Olanori eta Eneko Goiari. 100 bat lagun elkartu ziren Oñatin.

### "Zorpetze handia"

Aldundira iritsi orduko "konturatu" zirela Bidegik eta Aldundiak berak "zorpetze handia" zutela jakinarazi zuen Ugartek, "batik bat errepideetan".

Errepideen eraikuntzari dagozkien inbertsioak aztertu dituzte, AP-1 autobideko Arrasate-Eskoriatza eta Eskoriatza-Arlaban tarteei dagozkienak, hain zuzen. "Aretxabaletako Basagoiti lur biltegian esandakoa baino askoz lur gutxiago bota zela frogatu dugu eta zehaztu 3,4 milioi euro ordaindu zirela egin gabeko lanengatik", zioen Altubek.

Ondoren tunelak aztertu dituzte, eta "konturatu" dira 10,2 milioi euro ordaindu direla "egin ez diren lanengatik". Hori horrela, diru publikoko 13,6 milioi euro "bidegabe xahutu" izana salatu dute, eta kereila zabaltzeko eskatu: "Azaroan aurkeztu genuen kereila Azpeitiko epaitegian eta tramitera onartu zen Basagoitiko lur biltegian ia milioi bat tona falta zelako. Ondorioz ikerketa bat jarri zen abian, eta tuneletan ere beste hainbat kontzeptu antzeman genituen. Kontzeptu horiengatik kereila zabaldu egin da eta Azpeitiko epaitegiak tramitera onartu du".

Bestalde, AP-1eko Eskoriatza eta Arlaban arteko autobide tartean ere "irregulartasun" zantzuak "antzeman" dituztela jakinarazi zuen. Tarte horretako zati bat Arabari dagokio eta Ugartek salatu du Bidegik 10 milioi euro ordaindu zituela 2011n lanengatik; hain zuzen, Arabak ustez 2009an ordainduta zituenak. Ugarte diputatuak berretsi zuen gertatutakoa "ikertu" egin behar dela: "Markel Olanok eta Eneko Goiak azalpenak eman beharko dituzte".

### Txosten teknikoetan

EAJk, berriz, adierazi du AP-1 autobidearen likidazioak "beti oinarritu" direla txosten teknikoetan: "Ez da inoiz zegokiona baino gehiago ordaindu". Eta gaineratu du "eztabaida faltsua" inposatu nahian dabilela EH Bildu hauteskunde kanpainan.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
**PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Gatzagan badakite zeinek gobernatuko duen udalerria

Bost hautagaik osatu dute Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea, eta txandaka beteko dute alkate kargua; lehena Eneka Zankada izango da

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Debagoienean erabat ezohikoa da Leintz Gatzagako kasua, Euskal Herrian ere ez dira horrelako asko egoten: azken urteotan bi hautagaitza aurkezten ibili ostean –PP eta Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea–, oraingo hauteskunde hauetan hautagaitza bakarra aurkeztu da: Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea.

Gauzak horrela, ezusteko handia gertatu behar da maiatzaren 24ko bozketetan bost lagunek osatutako hautagaitza hori Udal Gobernura ez iristeko. Edozein modutan, hori bai, hauteskundeak egin egin behar dira, Udal Gobernua zilegi izan dadin.

Kontuak kontu, errealitatearen jakitun, azken lau urteotako Udal Gobernua eta datozen lau urteetakoa dagoeneko batzarrak egiten dabiltza, informazioa elkar trukatzeko.



Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea udaletxean, martitzenean. | UBANE MADERA

### Gaztetasuna eta jakinduria

Horietako batzar baten atarian, herenegun, martitzena, Eugenio Otsoa alkateak sortutako hautagai talde berriaren ezaugarri positiboak nabarmendu zituen: "Oso pozik nago, eta ez bakarrik erreleboa ikusten dudalako, baizik eta jende oso-oso ona aukeratu duelako herriak. Uste dut gaztetasuna eta jakinduria etorri direla, eta esperientzia ere badakartela, bertakoen bitartez, lehengoa, oraingoa eta geroa lotuta ikusten ditudalako (...) Herri txiki guztiek moduan lana ekarriko die, baina satisfazioa ere bai (...) azkenean, emaitza da maitemindu egiten zarela herriarekin".

### Gaztetasuna eta jakinduria

Bost lagun horien taldeko buru edo alkategai Eneka Zankada (Gasteiz, 1973) da. Baina behin eta berriro azpimarratu du hark taldea direla, herritarrez osatutakoa, eta hala funtzionatuko dutela, hau da, talde modura, baita alkate lanak zein udal antolaketak berezkoak dituen arloen edo batzordeen zinegotzi karguak betetzeko ere.

"Taldea gara; ez naiz neu bakarrik, aurkezten gara bertan [Gatzagan] bizi garen herritarrak eta talde moduan lan egin eta ikasi egin beharko dugu. Gure gogo guztiekin goaz udaletxera, eta ea, bada, lan ona egiten dugun", adierazi du Zankadak.

Eneka Zankadarekin batera, honako hauek osatu dute, gaur-gaurkoz, Debagoieneko Udal Gobernua ziurtatuta duen talde bakarra: Ixidor Salaberrik, Joannes Mendizabalek, Roberto Otazuk eta Juan Bengoak.

### Antzerako kasua

Gatzagakoaren antzerako egoera izan da –eta gehiago ere badira– Euskal Herrian. Oso sonatua izan zen, esaterako, Lizartzakoa, 2007an. Han, hori bai, EAE-ANVren legez kanporatzea izan zen egoera horren eragile. Eta ondorioa izan zen hautagaitza bakarra aurkeztu zela, PPrena; eta 27 botorekin (%7,6rekin) lortu zuela herriko gobernua eskuratzea.

# Markel Olano: "Enpresekin lan egingo duen administrazio publikoa ezinbestekoa da"

**G.A./L.K.** | ARRASATE

Enpresen eta administrazio publikoen arteko elkarlana defenditu zuen EAJko ahaldun nagusi izateko hautagai Markel Olanok Arrasateko bisitan. Bertako alkategai Maria Ubarretxenarekin batera, Ternua Group-eko ordezkariekin batzarra izan zuen Olanok joan den martitzenean. MU eta Alecop ere bisitatu zituen.

Debagoieneko jendea ekonomiaren gainean "kezkatuta" ikusi zuela esan zuen. Ekonomian azkenaldian izan diren gertakariek –Fagor Etxetresnen kasua, esaterako– sortu duten *shock*-a aitortu zuen, baina baikor azaldu zen: "Shock eta frustrazio momentu hori pasatu" eta jendarteak "etorkizunari esperantzaz begiratzea ezinbestekoa da". Horretarako, "proiektuak eta, batez ere, enpresak behar dira, eta enpresekin batera lan egingo duen administrazio publikoa behar da".

Azpimarratu zuen Gipuzkoa lurralde industriala dela, Arrasate erreferente izan dela eta, garrantzia eta izaera industrial hori berreskuratu ditzan, ekonomia politikak sustatu behar direla.




Markel Olano –ezkerretik lehena–, Arrasaten. | EAJ



EAJko hainbat ordezkari, Deskargako obrak bisitatzen. | GOIENA

# EAJk dio Deskargako obrek agerian utzi dutela EH Bildu

Geldituko obrak "lurralde osoari kalte" egingo diola salatu dute jeltzaleek agerraldi baten

**IMANOL GALLEGO** | ANTZUOLA

EAJren bozeramaile eta Antzuolako zinegotzi Maria Eugenia Arrizabalagak eta batzarkide Eider Mendozak Deskargako obren geldiarazteak egindako kalteak azaldu zituzten Antzuolan, Debagoieneko hainbat alkategaiekin batera, joan den astean. Jeltzaleek obraren diagnosi "zehatza" egin zuten, eta "Aldundiak ezkutatutako datuen eta hartutako erabakien inguruan" hitz egin zuten.

"Hamar ezpondetatik zortzi erori egin dira". Datu horrekin hasi zuen Eider Mendozak hitzaldia. Aldundiak obra guztia maiatzerako bukatzea agindu zuela ekarri zuen gogora, eta "premiazko erabakiak hartu ez izana" egotzi zion Foru Aldundiari. Mendozaren ustez, EH Bilduren gestioa agerian geratu da. Haren hitzetan "lau urteotan egindako obra garrantzitsu bakarra izan da" Deskargakoa.

Geldituko obrak, eskualdeari ez ezik, lurralde osoari kalte ekonomikoak egingo dizkiola gogoratu zuten jeltzaleek agerraldian.

### Egoera arriskutsua

Obraren egoera ere salatu zuten EAJko ordezkariek. "Segurtasuna bermatzeko premiazko neurriak har ditzala exijitzen diogu Aldundiari", esan zuen Eider Mendozak.

COPRECI
COPRECI, KOOP. ELK.

**2015eko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroldegian**, egingo da 2015eko maiatzaren 8an, arratsaldeko 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2014ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2015eko Gestio Plana onartzea.
3. 2014ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
4. 2014ko Emaitzen banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak.
6. Bazkideen maileguak 2015.
7. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
8. 2015 ekitaldirako Lan Aurrerakinen inguruko erabakiak.
9. Kooperatibako RIC 36.4 artikulua aldatzea.
10. 2/2010 Araua, Heziketarako eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoa duten beste helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzeko irizpideak, indarraldia zabaltzea.
11. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
12. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
13. Kontseilu Errektorea berritzea.
14. Kontseilu Soziala berritzea.
15. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Aretxabaleta, 2015eko apirilaren 24an

## ZABALIK



**OSKAR ELIZBURU**
goiena.eus/komunitatea/

# 'Kontrapas' abestiaren lezioa

Zelako kantuak ditugun Euskal Herrian! Zenbat aldiz abestu eta, zoritxarrez, ez dakigun zer esaten ari garen! Zelako mezu argia, adibidez, "*Kontrapas*" abestian: *Euskarari arnasa emateko balio duen guztia bedeinkatu behar dugu. Garaziko herria bedeinkatua izan dadila, Euskarari eman diolako behar zuen tornua (lanerako tresna, makina)* –Eta zer eman zion ba?–. Euskaraz idatzitako lehenbiziko liburua, garaztar batek, Etxeparek.

Eta horrekin zer lortu zen ba? *Beste jendeak, gehienak, uste zuten ezin zela idatzi, eta frogatu dute oker zeudela.* Eta euskaraz idatzi zutenean askoren aho zabal hura ikustekoa izango zen... Aurkako askori, ulertezina eta ezertarako balio ez zuela esaten zutenei, zapla! Alde zeudenentzat oraindik ageriago, –Ene! Balio duen barren!– *Orain hura igoko da beste guztien gainera!* Eta sinisten hasi ziren/ginen gure hizkuntza baliagarria zela, dela, baliatu behar dugula, plazara eraman behar dugula. *Euskara, Euskara, irten hadi plazara! Euskara, Euskara irten hadi mundura!*

**Euskara ikusgarri egin dugu, eta hor dugu toki askotan, erabiltzeko moduan**

Eta mezu horrek egin zuen bere bidea, eta euskara ikusgarri egin dugu, eta hor dugu toki askotan, egunerokoan erabiltzeko moduan, eta toki batzuetan norma-normal erabiltzen dugu, eta, hortaz, hau egina dago!?

Bai zera! *Euskara jalgi hadi plazara* esan behar izan dugu berriro ere; Lorea Agirrek argi esan zigun Korrikako mezuan: "Euskarak eta euskaldunok plaza hartu behar dugu eta nor bagarela erakutsi"; euskarari duen balioa eman behar diogu denon artean, euskahaldundu behar dugu gizarte osoa.

Eta hori egin daitekeela eta egin nahi dugula argi badugu egin dezakegu, ez bestela. Plazara irtetea lehenbiziko pausua izan zen, orain plaza hartu eta gure egin behar dugu; plaza euskaldundu, plaza euskahaldundu! Eta plaza Euskal Herria da, euskal herritarrok gara. Egiten duguna gara.

## USTEAK USTE

**XABIER URZELAI** | xurzelai@goiena.eus

# Dabilenari gertatzen zaio

Aste barruan ikusi dut [sare sozialetan] Udalatxeko lasterketan parte hartu zuen lasterkari baten orkatila, erabat handituta. Eta astelehenean *Harmailatik* saioa prestatzen genbiltzala jaso genuen albiste on bat: zapatuan Aloñako Igoeran Buetraitzen erorikoa izan zuen Joseba Molinerok zauri txikiak baino ez zituela, eta haren erretratua ere jaso genuen, ospitalean, ondo dagoen keinua eginaz.

Bi lagun horiek aste batzuk beharko dituzte ondo errekuperatzeko, baina dabilenari gertatzen zaio. Eta animoak domekan nire parean lurrera joan eta itzulipurdika hainbat metro egin zituen zikloturistari; hor ere, dabilenari gertatzen zaio, eta segi ibiltzen.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## GUTUNAK

# Ongi etorri infernura!

**Joseba Molinero**
Oñati

Apirillaren 26a, 10:05, Buetraitz eta Akaitz artian, *kresterixan*... harri bat, labainkada bat, apoio txar bat... ez dakit zer, baiña konturatu orduko hamabi metroko kaida librian, ezin gorputza geratuta, harri, belar eta ertz danak joaz... Akaitzeko puntan katalejuaz ikusten eta flipaitten; eskerrik asko, Kizkitza.

Halako baten geratu, gora begittu eta? Gorputz dana odoletan, maillota zer danik be ez... Zaratak entzuten hasi nintzen, Galfa, Lasku, Kanu, diarka. Nereana aillau eta Kanuren hitzak: bizirik dau... eta buruan ez dako golperik. Milagro.

Handik aurrera pasau nebenak kontaittera nator. Ez bazan zureatik, nola aillau ni nunbaittera. Kanuren eta Kizkitzaren material on eta berua jantzi eta poliki-poliki goruntz zulotik... ze miñak... bi pausu, geratu, ura edan, beste bi pausu, eta halako baten Buetraitzeko buzoira. Handik besuetatik helduta zelabait, Gurutze Gorriko todoterrenoraiño. Eskerrak zueiri. Zuasti, Estitxu, Egoitz, Olatz, Txino... Aloñatik Lizartzara bajau eta han anbulantzia zain. Oscar eta Andrea, txoferra eta erizaiña. Ze lana zuria, Andrea, Arrasateraiño kurak egitten, konstantiak hartzen eta morala emuten, hipotermia puntuaz...

Zorionez, kontaitteko moduan nau eta eskerrak danoiri. Antolatzailliak euki dozuen tratua; badakit, Iban, ze gaizki pasau zeben, ez zan nire intentziñua.

Endika Gartzia korrikalarixari ze esanik ez, bixok goiazen batera, aspaldittik gara lagunak, gaiñera; berak ikusi eben dana, karrera dana pasau ebela nitaz akordaitten, han geratu bihar zala neri lagunketan, aste dana mezuak idazten; animo, Endika. Eta pasadia izan zana, ze apoiua emun nostain karrerako korrikalarixak. Eskuak emun lagunketako, animuak... zer moduz? Benetan eskerrak.

Post-data: hemendik antolatzaille eta herrixari ohartxo bat: aurten 106 dorsala ez da metara aillau, baiñe hurrengo urtian aillauko dan esperantziaz besarkada bat danoiri, Deabruari be bai. Ez naiz hemendik bizi, baiña bizitzaren zati bat horko mendixetan dakot aspaldittik.

# Hamaika ikusteko!

**Mikel Arantzabal**
Eibar

Hautsak harrotu ditu Gaizka Garitanok Almerian egin zuena.

Euskarazko galdera bati euskaraz erantzun zion. Ez besterik. A ze delitua...

Komunikabideetan entzundakoak entzunda, bakarren bati falta izan zaio esatea errua ETBko kazetari Joseba Urkiolarena izan zela, euskaraz galdetzearren ETB1erako. Akabo! Beste batzuek esango dute alde egin zuela partidua galdu eta zulotik gertu dagoelako taldea.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# HERRIAK



Erabiltzaileak, joan den zapatuan, San Martingo aisialdirako ortuetan egindako prestakuntza saioan. | OIHANA ELORTZA

# Dena dago gertu San Martingo aisialdirako ortuetan landaketak egiten hasteko

▸ Maiatzaren 4tik (astelehena) aurrera emango ditu Udalak erdiko etxolako giltzak

▸ Behin horiek jasota, baratzeak lantzen hasi ahal izango dira erabiltzaileak

MIREN ARREGI | OÑATI

Prestakuntza saioak bukatuta, iritsi da San Martin auzoko aisialdirako ortuetako lursailetan baratzea lantzen hasteko unea. Astelehenean, maiatzak 4, banatuko ditu Udalak erdiko txabolako giltzak, eta, beraz, ordutik aurrera erabiltzaileak hasi ahal izango dira landaketak egiten. Giltzak udaletxean bertan hartu beharko ditu eskatzaileak, nortasun agiria aurkeztuta.

Hain zuzen ere, erdiko txabola horretan egongo da erabiltzaileek landaketak egiteko beharrezko duten tresneria guztia, hala nola palak, aitzurrak, sardeak, ureztontziak, ongarria botatzeko tresneria, karretillak, eta abar. Ur hartuneak bost dira guztira, eta, hala, erabiltzaile bakoitzak, asko jota, hogei metroko distantzia izango du lursailetik ur hartunera.

### 59 erabiltzaile

Udalak aisialdirako ortuetarako bideratu dituen 74 lursailetatik 59 daude gaur egun okupatuta. Hain zuzen ere, hori baita, azkenik, eskatzaile kopurua. Azken asteetan kopuru horretan gorabeherak izan dira; izan ere, lehen zozketatik, bederatzi pertsonak eman dute baja proiektuan. Hori horrela, aldaketak egon dira; hain zuzen ere, hainbat eremu libre gelditu direla ikusirik, 59 erabiltzaile horietatik hamaikak egin dute hasiera baten eurei egokitutako lursaila aldatzeko eskaera –atzo zen aldaketa eskaera egiteko azken eguna eta atzo esleitu zituzten berriak.

### Prestakuntza saioak

Joan den zapatuan egin ziren azkeneko formazio saioak. Guztira, egin dituzte hiru teoriko eta hiru praktiko, eta, esan bezala, zapatukoaren ostean gertu dira erabiltzaileak landaketak egiten hasteko.

Ikastaroak Azpeitiko Kimubat enpresak eskaini ditu eta saio praktikoak San Martingo ortuetan bertan izan dira. Hainbat eta hainbat kontu izan dituzte berbagai horietan. Batetik, lurraren propietateez jardun dute. San Martingo lurra lur astuna da eta lur mota horretan landaketak egiteko modu egokia zein den eta zein ez izan dute berbagai. Ongarrien eta mineralen gainean ere aritu dira, baita neguan belar txarrik atera ez dadin erabili beharreko ongarriez ere. Saioak oso parte hartzaileak izan dira, ortuen erabiltzaileek galdera mordoa egin baitituzte. Besteak beste, galdera zehatzak egin dituzte barazki baten edo bestearen gainean.



Landaketarako barazkiak eta tresneria. | OIHANA ELORTZA

### Araudia

Joan den iraileko osoko batzarrean onartu zuten aisialdirako ortuen erabilera araudia. Besteak beste, onartu zuten, baratze horietan erabiliko den konposta bertan sortutakoa izatea, eta, gehiagoren beharra izanez gero, auzo-konpostean sortutakoa erabiltzea. Euri-urak aprobetxatzea eta baratze eredu horrek herriko nekazarien merkaturatzea ez oztopatzea ere onartu zituzten, adibidez. Bereziki barazkien landaketarako eremua izango da, eta ezingo da berotegi, txorimalo, etxola edo halakorik ipini, ezta lursaila itxiko duen itxiturarik ere. Landare exotiko edo inbaditzaileak landatzea ere debekatu egingo dute. Zuhaitzik ezingo da landatu, ezta fruta-arbolarik ere. Loreak landatu ahal izango dira, baina ezingo da sail guztia horretara bideratu, helburua, betiere, nekazaritzari bultzada ematea baita. Araudiak errotik debekatzen du produktuen salmenta; nork bere kontsumorako bakarrik landatu ahal izango du.

### Elkartearen sorrera

Lursailen kudeaketarako eta mantenurako, bestetik, erabiltzaileek elkarte bat sortu beharko dute. Esandako moduan, maiatzaren 4tik aurrera jaso ahal izango dituzte erabiltzaileek giltzak; laster, beraz, tomatez, letxugaz, marrubiz... beteta egongo dira San Martingo aisialdirako ortuak.

# Joxe Manuel Arriola hil da, kalezain "langilea, zintzoa eta zuzena"

1939tik 1981era izan zen aguazila: "Lehen alkateak eredutzat jarri zuen, lanean zintzo eta jator jokatu zuelako", dio Josemari Velez de Mendizabalek

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Martitzenean, apirilak 28, hil zen Joxe Manuel Arriola Sorazu, Arrasateko aguazil ezagunena. 1939tik 1981eko martxora arte izan zen kalezaina –hala deskribatzen zuen bere burua– eta batez ere adineko arrasatearrek Arriolarekin izandako bizipenetan oinarritutako hamaika bitxikeria gogoratuko dituzte. *Dongi* zuen ezizen, baina ez zitzaion batere gustatzen, eta hala deitzen zionari isunak jartzen zizkiola ere gogoratzen dute askok.

Hala ere, Josemari Velez de Mendizabalek dio kalezain "langilea, zintzoa eta zuzena" izan zela: "Herriko lehen alkateak eredutzat jarri zuen gure gizona, betebeharrean zintzo eta jator jokatu zuelako. Joxe Manuel Arriola, Arrasateko herriari bizitza guztia emanda. Harekin aro oso bat, euskal zaintzaile zaharrena, aldendu zen udaletxetik. Eta gure herriak ez dio oraindik esker onik erakutsi".



Arriola, lehena ezkerretik, 1950eko hamarkada hasieran. | LASO

**"Arrasate biziki maite dut"**

Debako Goikoetxe baserrian jaio zen, 1916ko ekainaren 15ean. Velez de Mendizabalek 1979an egindako elkarrizketa baten honako hau zioen Arriolak berak: "Gerra denboran Zaragoza ondoko herrixka baten zauritu ninduten. Hamasei hilabete eman nituen erietxe baten, eta elbarritasun bat izateak aukera eman zidan 1939ko maiatzean instantzia bat egiteko Arrasateko lanpostu baterako".

Urte hartan bertan hasi zen lanean: "Orduko alkate Domingo Artzamendiren ondoan 1939ko irailean ekin nion udal kalezain izateari. Bederatzi urte egin nituen Pagaldai sendiarekin, apopilo, eta han egon nintzen ezkondu arte. Debakoa daukat emaztea eta lau seme-alaba ditugu, laurak hemengoak. Honako hau esan dezaket: Arrasateko herria biziki maite dut eta Arrasatek ere ni maite nauela uste dut".

**Bertsozale amorratua**

Askok ez dakitena da bertso-paper egile fina zela. 1972ko liburu baten jaso zituen ordura arte egindako hainbat bertso. Velez de Mendizabalek berak ere eskaini zion bertso bat 1981eko Santamasetan, Arriolaren *Nekez bada ere* liburuaren aurkezpenean: *Har ezazu Joxe Manuel / zintzo ta jatorra / eskaini nahi dizugun / bihotzeko agurra / arrasatearron alde / egin duzun beharra / horrek bihurtu zaitu / guztiz mundrautarra.*

# Jolasaren balio hezitzailea aldarrikatzeko bilduma

'Kalekantoi' kaleratu du Txatxilipurdik, 41 jolas dituen liburuxka; hamar eurotan dago salgai

**J.B.** | ARRASATE

*Kalekantoi* izeneko kaleko jolasen bilduma kaleratu berri du Txatxilipurdik. 41 jolas ditu liburuxkak, eta, asteleheneko aurkezpenean azaldu zutenez, egunerokotasuneko hainbat egoeratan jolasteko jolasak batzen ditu, sei multzotan sailkatuta: *Bidejolasean, Gora jaixak, Helduak poteoan ari dira, Eta orain bazkaria, Bizi bete kalea* eta *Amalurra gure lagun*. Egileak arrasatearrak dira: Maddi Urizarrek sortu ditu jolasak askotariko jatorrietan oinarrituta eta Andoni Iñurritegirenak dira ilustrazioak eta diseinua. Bilduma salgai dago Txatxilipurdiko egoitzan, hamar eurotan.

4 urtetik gorako haurrendako da *Kalekantoi*, eta umeen ikuspegitik sortu da: "Herri eta hiriak haurrenak ere badirela aldarrikatzeko sortu dugu. Horregatik bultzatu nahi izan ditugu haurrak kalea bere egitera eta euren kabuz bertan jolastera. Jolasaren indar sozializatzailea eta hezitzailea azpimarratu eta jarduera ludiko eta talde jolasaren bidez zenbait gaitasun lantzeko baliagarria den tresna sortu dugu".

**Helduen esku hartzea**

Haurrendako izan arren helduen esku hartzea ere bultzatu nahi dute Txatxilipurdikoek: "Horregatik irizpide eta aholku sorta ere prestatu dugu, batez ere, erabilera hezkidetzagilea sustatu guran. Hezkidetza zergatik? Horren ohikoak diren sailkapen sexistak ekidin eta neska zein mutil izan jolasteko aukera guztiak eskainiz, haurren euren identitate eta gaitasun sozialak askatasunean eraikitzeko", adierazi dute.



Maddi Urizar eta Andoni Iñurritegi jolas bilduma eskuan dutela. | J. BEREZIARTUA

### Lan Eskubideen Gida aurkeztu dute LABek eta Ernaik, gazteentzat

Gazteek bizi duten "lan egoera prekarioari" aurre egiten laguntzeko "informazio praktikoa" jasotzen du astelehenean aurkeztu zuten gidak. LAB sindikatuak eta Ernai gazte antolakundeak abiatutako elkarlanaren "lehen fruitua" da gida, Maiatzaren Lehenaren bueltan aurkeztu dena.

### Berbalagunen "irteera kulturala" Arabako Errioxara maiatzaren 9an

Bastida inguruan ibiliko dira eta Fran Zumalabe arkeologoak lagunduta bisita gidatua egingo dute. Euskaltzale eta kide guztiei zabaldu die gonbidapena AEDk. 45 euro da prezioa –bazkaria, autobusa eta bisita gidatua– eta izena eman behar da maiatzaren 6a baino lehen. Izena emateko: 943 77 12 28 eta *zaharberri@aedelkartea.com*.

### Zuztarrak Errotuz-ek Erlantz Urtasunekin itxiko du hitzaldi zikloa

Udaberriko hitzaldi zikloa amaitzeko, Zuztarrak Errotuz taldeak eta Nabarraldek historia ikertzaile Erlantz Urtasun gonbidatu dute *Eneko Aresta: Nafar Estatuaren sorrera* izeneko hitzaldia eskaintzeko. Maiatzaren 6an izango da, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita.

# AGAKO, "oso pozik" 24. urteurreneko ekintzekin

**J.B.** | ARRASATE

Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofrafia Organizatua (AGAKO) "oso pozik" dago apirilean zehar egin dituzten 24. urteurreneko ospakizunekin: "Egitarau oparoa antolatu dugu eta ekintza guztiek izan dute harrera ona, baita normalean antolatzen ez direnek ere", adierazi du AGAKOko kide Manex Agirrek.

Apirilaren 25ean Gosariak izan zen gaztetxeko agertokian: "Formatu ezohikoa izan zen, publiko gehiena eserita, eta adin tarte zabala. Oso giro polita egon zen, etxeko giroa". Hilaren 26an, herriko hainbat bitxikeria ezagutzeko aukera izan zuten gazteek –eta ez horren gazteek– Ana Isabel Ugalde historialariaren eskutik: "Euria egin zigun arren oso ondo egon zen. 30 bat lagun elkartu ginen; asko ikasi genuen egunero zeharkatzen ditugun lekuen inguruan", adierazi du Agirrek.

Datorren urtean 25 urte beteko ditu AGAKOk: "Zenbaki borobilak direnean egitarau are indartsuagoak antolatu izan ditugu eta datorren urtekoa horrela izango da, seguru. Hori bai, aurtengoarekin muga oso goian jarri dugu...".

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Sexualite askearen gaineko saioak datorren astean

Gurasoei zuzendutako ikastaroa da eta maiatzaren 5ean, 6an eta 7an egingo da; izen-ematea, zabalik

**J.B.** | ARRASATE
Udaleko Sexologia Zerbitzuak *Sexualitate aske eta osasuntsua eraikitzen* izeneko ikastaroa antolatu du maiatzaren 5erako, 6rako eta 7rako. 0 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzenduta eta izen-ematea zabalik dago oraindik. Bi bide daude izena emateko: 943 25 20 07 telefono zenbakira deituta edo *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikora mezua idatzita. Saioak Kulturateko Loramendi gelan izango dira.

**Hausnarketarako saioak**
Sexualitatearen gaineko hausnarketak izango dituzte ardatz datorren asteko saioek: "Haur eta gazteek jasotzen duten informazioa bezain garrantzitsua da euren ingurukoek sexualitatea bizitzeko duten modua. Zoriontsu izatera bultzatzeko, egiten dituzten galderak erantzuteaz gain, euren gorputza ezagutu, onartzen lagundu, komunikatu, hitz egin, entzun eta izan ditzaketen iritziak errespetatu behar ditugu", adierazi dute antolatzaileek.


GURE ESKU DAGO ARRASATE

## Hainbat herritar erabakia ehuntzen

Gure Esku Dago ekimenak apirilaren 26rako antolatutako Ehuntze Eguna arrakasta borobila izan zen. Arrasatearren "askotariko" oihalak josi zituzten Herriko Plazan, beste hainbat ekintzarekin batera –adibidez, argazkiko akrobata–. Gero, jositako oihalekin suge koloretsu bat osatu zuten: "Herriak beharra sentitzen du erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko. Helburua ez zen oihal kopuru bat lortzea, baizik eta sentimendu bateratu bat bideratzea".

### Maiatzaren 8ra arte eman daiteke izena udaleku irekietan zein itxietan

Txatxilipurdik gogora ekarri duenez, maiatzaren 8a baino lehen eman behar da izena uztaileko udaleku irekietan zein itxietan. Txatxilipurdiko webgunearen bidez *(www.txatxilipurdi.com)* edo Nafarroa etorbideko bulegora gerturatuz eman daiteke izena. Argibide gehiagorako: 943 79 54 46.

### OHARRAK

**KIROL INSTALAZIOAK ITXITA BIHAR, MAIATZAK 1**
Maiatzaren Lehena dela-eta Udaleko Kirol Zerbitzuko instalazioak –Musakolako kiroldegia, Iturripe eta Uarkape– itxita egongo dira bihar.

**DIRU LAGUNTZAK**
Diru laguntzen programarako deialdia zabalik dago maiatzaren 13ra arte (943 25 20 00).

# Zuzeneko musika protagonista San Andresko jaietan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE
Gaur bertan hasi eta zapatura arte jai giroak ez du etenik izango San Andres auzoan. Gaur, apirilak 30, haurrek izango dute protagonismoa. Txatxilipurdik askotariko ekintzak antolatu ditu auzo alkatetzarekin –Jon Barriocanal buru duela– elkarlanean: haur jolasak (17:00), 12 eta 16 urte artekoendako mahai-futbol txapelketa (17:30), haur eta gaztetxoendako txokolate-jana (18:30) eta buruhandiak Kurtzetxiki plazan (19:30). Euria egiten badu, Gudarien plazan ibiliko dira buruhandiak.

**Agertokira itzulera**
Hurrengo bi egunetarako adin guztiendako egitaraua prestatu dute. Aurten, baina, pisu berezia izango dute kontzertuek. Sin Mas taldea bihar igoko da agertoki gainera 25 urte jo barik egon ostean eta zapatuan joko duen Iskanbila taldea ere oso kutuna da hainbat gazteren artean. Bestalde, aurtengo nobedadea da Bergarako Zezenak ganadutegiak poneyak eta bigantxak ekarriko dituela.

**EGITARAUA**

**BIHAR, MAIATZAK 1**
**12:00** Meza nagusia.
**12:00** Poteoa kalerik kale Incansables txarangarekin.
**14:30** Auzoko 80 urtetik gorakoendako bazkaria Corazon de Encina elkartean. Gizon zaharrenari txapela eta emakume zaharrenari zapia opari.
**14:00** Auzo bazkaria Gudarien plazan.
**22:00** Sin Mas eta Tribus Ocultas taldeen kontzertua Gudarien plazan.

**ETZI, MAIATZAK 2**
**11:00** Kalejira gaiteroekin.
**17:00** Haurrendako poneyak eta bigantxak Hiruki plazan.
**22:00** Kadena Perpetua, Pitxontxis eta Iskanbila taldeen kontzertua Gudarien plazan.


ARRASATE HERRI ESKOLA

## Izkiko natura parkera irteera

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak eta Elkarbizitza batzordeak antolatuta, mendi irteera polita egin genuen domekan ikasleek eta gurasoek. Arabako Izkiko natura-parkean pasatu genuen eguna, mendi buelta polita eginda. Han bazkaldu eta herriko txokoak ezagutzeko aukera izan genuen.

### NIRE USTEZ


OSCAR RODRIGUEZ

## Jokaera berritzaileak

Duela egun batzuk, Iruñean, Tactiok antolatutako jardunaldi batean parte hartu nuen. Berrikuntzaren gainean zen jardunaldia eta berritzailea izan zen oso! Ez da normala mahai berean filosofo bat eta enpresari bat esertzea, aurrez aurre, gai horri buruz hitz egiteko. Protagonisten izenak, Daniel Innerarity eta Aner Garmendia. Lehenengoa ez dago aurkeztu beharrik, egun daukagun pentsalari ospetsuenetakoa da.

Bigarrena aurkeztu egingo dut, ez dugu-eta haren izena egunero egunkarietan irakurtzen. Garmendia euskal enpresa baten zuzendari nagusia da, Ega Master izeneko enpresa "txikia eta familiarra"; Gasteizen dago, 200 patente dauzka eta munduko 150 herrialdetan saltzen ditu bere produktuak. Inneraritykdefendatu zuen "kaos guneak" eratu behar direla erakundeetan jokaera berritzaileak sorrarazteko. Garmendiak esan zuen bere enpresan ez zegoela berrikuntzarako aurrekontu finko bat eta berrikuntza sortzen dela merkatua eta bezeroekin etengabeko harremana izaten. Gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko ez diegu erakunde publikoei, finantza-entitateei edo inbertsio funtsei begiratu behar.

Gure buruari, gure erakundeei begiratu behar diegu. Berritzea gauzak beste era batera egitea ere bada. Noizbehinka, egunerokotasuna alde batera utzi behar da, kaos guneak eta etengabeko harremanak izateko. Jokaera berritzaileak sorrarazteko.

**"Lehiakortasuna hobetzeko gure buruari begiratu behar diogu"**



# San Andresko jaiak 2015
ARRASATE

## Eguena, apirilak 30

**16:30 Etxafuegoak**
**17:00 Haur-jolasak** Txatxilipurdik antolatuta.
**17:30 Mahai-futbola** 12 eta 16 urte arteko gazteentzat. Izena emateko epea 17:00etan irekiko da. Txatxilipurdik antolatuta.
**18:30** Haur eta gazteentzako **txokolatea**.
**19:30 Buruhandiak** Kurtzetxiki plazan –euria bada, Gudarien plazan–.

## Egubakoitza, maiatzak 1

**10:00 Etxafuegoak**
**12:00 Meza nagusia**
**12:00 Poteoa** kalerik kale **Incansables** txarangarekin
**14:30** 80 urtetik gorako erretiratuentzako **bazkaria**, Corazon de Encina elkartean.
**14:30 Auzo-bazkaria** Gudarien plazan, Incansables txarangarekin.
**22:00 Sin Mas** eta **Tribus Ocultas** (Tributo a Radio Futura) taldeen kontzertua, Gudarien plazan.

## Zapatua, maiatzak 2

**10:00 Etxafuegoak**
**11:00 Kalejira** Arrasateko Gaiteroekin
**17:00** Haurrentzako **poneyak eta zezentxoak**, Hiruki plazan. Bergarako Zezenak Ganadutegiarekin.
**22:00 Kadena Perpetua**, **Pixontxis** eta **Iskanbila** taldeen kontzertua, Gudarien plazan.

**AVENIDA** kafetegia
**BASTIDA** akademia
**BITTORI** erretegia
**EQUS** taberna
**INTERSPORT** Loramendi
**ITXASO** kafetegia
**JOSE ARANZABAL** sukaldeak eta etxetresna elektrikoak
**KAPIKUA** moda eta osagarriak
**KUKURUTXO** gozoki denda
**LIZARRALDE** kirolak
**MONDRAGONLINGUA** hizkuntza eskola
**OIHAL** gortinak
**RAOS** sarraila-denda 24 ORDU eta oinetakoen konponketa
**TANTAKA** taberna
**URRETXU** taberna

**ONDO PASAU JAIETAN!**



# Musakolako mendi bizikleta martxaren noranzkoa aldatu dute

Zailtasun ezberdineko bi ibilbide zehaztu dituzte maiatzaren 10erako

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Maiatzaren 10ean egingo dute Musakolako VIII. mendi bizikleta lasterketa (09:00). Berrikuntza bakarra izango du: ibilbidearen noranzkoaren aldaketa. "Orain arte Bakue eta Kurtzetxiki aldera hartu dugu hasieratik, eta Anporreta bukaerarako utzi dugu. Bada, aurten alderantziz egingo dugu", esan du antolatzaile taldeko Arkaitz Zeziagak.

Hori horrela, ibilbidea honako hauxe izango da: Musakola-Anporreta-Musakola-Zazpi bide-Zubillaga-Bedoña-San Jose-pe-Kurtzexiki-Bakue-Zazpi bide-Musakola. Ibilbide horrek 34 kilometro ditu, eta 1.200 metroko desnibela.


Hiru txirrindulari iazko proban, aldapa behera. | MUSAKOLA.COM

Baina badago besterik. Zailtasun handiagokoa. 45 kilometrokoa. "Ibilbide luzea oso teknikoa da. Desnibel handia duena. Ia 1.700 metro. Maila handiko txirrindulariendako aproposa", dio Zeziagak.

Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea: aldez aurretik *www.musakola.com* atarian edo egunean bertan, lasterketa hasi aurretik, Ziar-Ola elkartean.

Ibilbidearen erdi inguruan eta amaieran anoa-postuak ipiniko dituzte, eta, guztira, 250 txirrindulari onartuko dituzte.

**Umeendako bizikleta jaia**

Bestalde, egun berean, 10:30ean, umeendako bizikleta jaia egingo dute. Gazteendako ere bi ibilbide zehaztu dituzte; biak ere, bidegorritik. Ibilbide erraza Musakola-Ekilore-Musakola izango da; eta ibilbide zaila, Musakola-Elorregi-Musakola.

Umeek duten mailaren arabera, akaso, pertsona heldu baten laguntza behar izango dute lasterketan parte hartzeko.

# 21. Udaberriko Musikaldiaren balorazio positiboa egin dute

**IMANOL BELOKI** | ARRASATE

Udaberriko Musikaldiaren programan era guztietako soinuak entzuteko aukera izan da. Bost emanaldi izan dira, guztira, apirilaren 17tik apirilaren 25era bitartean.

Ikko perkusio taldeak hasi zuen programa, eta Arrasate Musikaleko irakasle bat oholtzan izateak gazte asko erakarri zituen. Bigarren emanaldia Txorbela otxoteak eskaini zuen, Iruñeko Ahots Baxuen Abesbatzarekin elkarlanean. San Juan parrokian izan zen, eta eliza bete egin zuten. Euskal Barrokensebleren emanaldian, berriz, antolatzaileek espero baino jende gutxiago gerturatu zen, baina Enrique Solinis gitarra-joleak, adibidez, maila bikaina erakutsi zuen. Arrasate Musikalek eta Goikobaluk urteroko arrakasta izan zuten, eliza beteta egon zen-eta. Azkenik, Zura laukoteak itxi zuen Udaberriko Musikaldia, eta Kulturate bete-beteta ikusteko aukera izan zen.

**Mota guztietako eta maila handiko musikariak**

Orokorrean, balorazio positiboa egin dute Udaberriko Musikaldiaren antolatzaileek. Karmelo Alberdi Kultura teknikariaren esanetan: "Aukera paregabea izan da hain ohituta ez gauden musika entzun eta gozatzeko.

## Oñatiko Antihumano talde sortu berriak kontzertua eskainiko du bihar Iluntz tabernan, 19:00etan

Punk-hardcore talde bat sortu dute Oñatin, Antihumano izenekoa. Apirilaren 18an taula gainera igo zen lehen aldiz, eta egubakoitzean bigarren kontzertua eskainiko dute, Arrasateko Iluntz tabernan, 19:00etan. Hiruk osatzen dute taldea: "Oinarrizko formatua, gizakiaren eromen suntsitzailea arbuiatzeko. Abiadura eta haserrea baliatuta". Golpe de Estado, Sospechosos eta CC627 taldeetan aritutako musikariek osatzen dute Antihumano, eta azkar, gogor eta indartsu izango dira taula gainean.

# Bigarren Territorialeko MUk igoera lortu du

**M.B.** | ARRASATE

"Helburua bete dugu. Pozik eta harro gaude egin dugun denboraldiaz". Berba horiekin laburtu zuten Mondragon Unibertsitateko territorial taldeko ordezkariek bukatu berri duten denboraldia. Zarautzi 36-79 irabazita, Lehenengo Territorialerako igoera lortu dute. "Urteko partidurik onena jokatu genuen. Defentsan sendo eta erasoan saskiratzeak lortuz. Ia guztia ondo egin genuen, eta horren isla izan zen emaitza", esan dute.


Bigarren Territorialeko MU taldea. | JUAN CARLOS DAVILA

Lehia erabakita zegoenean, hainbat aldaketa egin zituen entrenatzaileak, eta urtean zehar minutu gutxiago jokatu dituzten jokalariak irten ziren kantxara. "Sari bat izan zen", esan du.

**Infantilak eta gazteak**

Bestalde, infantil mailako saskibaloi taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. 48-29 menderatu zuen Donostiako taldea, eta, joaneko partidutik zuten errenta handituz, sari potoloena lortu zuten Musakolan, etxekoen aurrean.

Azkenik, gazte mailako taldeak Gipuzkoako Txapelketako finalerdietarako txartela lortu zuten. Tolosaren kontra 44-58 irabazi ostean, liga lehen lekuan bukatzeko aukera handiak dituzte arrasatearrek.


BERTSOZALE ELKARTEA

## Bertso finalean Iñigo Ibañez garaile

Bertso eskoletako kideak Irunen elkartu ziren Gipuzkoako Bertso Eskolen eguna ospatzeko, eta arratsaldean Eskolarteko 35. finala jokatu zen Amaia Udal Antzokian. Zortzi bertsolari izan ziren oholtza gainean; tartean, Ane Zuatzubizkar arrasatearra. Lan ona egin zuen arrasatearrak, baina Iñigo Ibañez azpeitiarra izan zen garaile. Hura da Gipuzkoako Eskolarteko txapeldun berria.

10 urte
BEDOÑABE HAURRESKOLA
0-2 URTE
Matrikulazio epea: maiatzaren 4tik 13ra
2014-2015ean jaiotakoentzat
Alfonso VIII 1. Arrasate
Tel.: 943 79 76 86.
bedonabe.arrasate@haurreskolak.net
Haurreskolak

# Presoen aldeko kartela kentzeko agindua bete du Udalak

## Espainiako gobernuko ordezkariak egin zuen eskaria urtarrilean

M.D. HORRILLO | BERGARA

Euskal presoen giza eskubideen alde lanean jarraitzeko borondate irmoari eutsiko diotela adierazi du Bergarako alkate Jaione Isazelaiak. Horixe azaldu nahi izan zuen asteleheneko osoko bilkuran, Espainiako gobernu ordezkariak egindako eskaria dela-eta udaletxeko balkoian jarrita zegoen presoen aldeko kartela kentzeko erabakia hartu beharra izan duelako udalbatzak. Urtarrilaren 26an jakinarazi zitzaion Udalari estatuko abokatuak errekurtsoa ezarri zuela balkoian jarritako kartela kentzeko. Ondotik, Donostiako Administrazio Auzitegiak eskaria gauzatzeko errekerimendua egin zion Udalari, eta, epaitegian aginduaren kontra egiten saiatu diren arren, prozedura garestia eta aldeko emaitzarik gabea izango zela jakinarazi die abokatuak udal ordezkariei. Gauzak horrela, agintaldiko azken aurreko osoko bilkuran bozketara eraman zuen gaia udal taldeak. Aldeko hamalau botorekin eta abstentzio batekin hartu zen erabakia. Isazelaiak azaldu zuenez, epaitegietan horren kontra jotzea "ibaira dirua botatzea" litzateke.

Bozketaren ostean udal taldearen erabakia azaldu zuen alkateak, eta salatu zuen Donostiako epaitegiak men egin izana Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Urkixori. Alkatearen iritziz, "bidezkoa den aldarrikapenaren kontra jotzea adierazpen askatasunaren kontra jotzea da. Udalak bere iritzia eta jarrera erakusteko aukera eta eskubidea izan beharko luke gai guztietan, baita ere legezkoa den eskari honetan: euskal presoen eskubideen defentsa, alegia".




Agindutakoa betetzeko erabakia bozkatu eta berehala kendu dute kartela balkoitik. | M. BELASTEGI

### Zabor bilketaren kostua

Galdera-erantzunen txandan, Kontu Epaitegiak kaleratu berri duen atez ateko zabor bilketa sistemaren gaineko txostena izan zuen hizpide EAJren bozeramaile Aintzane Oiarbidek. "Txostenak agerian laga du bailaran dirutza xahutzen ari dela atez ateko sistemarekin". Gainera, salatu zuen "zabor bilketaren kostua %104" igo dela bailaran.

Alkateak gezurtatu egin zituen Oiarbidek emandako datuak. Adierazi zuen Bergara eta Eskoriatza ez zeudela sisteman sartuta txostena egin zenean. Gaineratu zuen beti onartu izan dutela bilketa bera garestiagoa dela, baina, gehiago birziklatzen denez, tratamendu gastuak jaitsi egin direla, "baita hondakinen salmentagatik gehiago irabazi" dela ere. Era berean, 2011tik 2014ra, herritarrek ordaindu beharreko tasa lau euro baino gutxiago igo dela azaldu nahi izan zuen Isazelaiak. Bergararrek hiru hilean behin ordaintzen duten zerga agiria eskuetan, adierazi zuen 2013tik 2015era %3,6 bakarrik izan dela igoera, eta dei egin zien herritarrei: "Aurreko urteetako fakturak aldera ditzatela, ohartzeko igoera ez dela 4 eurora iristen".

# Txosnetako txandak

KOMUNITATEA GOIENA | XAXAU KONPARTSA | BERGARA

Jaixak gerturatzen doiaz, eta, seguruenik enteratuko zinan moduan, Txosnaguneko txandak betetzeko deialdixa egin dotsagu herrittarrei.

Kartelian ondo azaltzen daben moduan, 3 orduko txandak die eta gehixenak –bateron bat kenduta– 4 lagunez osatutakuak.

Izena emuteko 3 modu ezberdin dare: Twitter, Facebook edota Gmailera bidalita. Txanda bat osorik betetzeko konpromisua eskatzen da, bakoitzian arduradun bat izendatu biharko da eta bere telefono kontaktua emun.




Bideberriko txosnetako txandak egiteko deialdia. | XAXAU KONPARTSA

# Bergara Hiria lehiaketa abian da

M.D.H. | HERRIA

31. edizioa du aurten Bergara Hiria argazki lehiaketak eta Argizaiola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria izango da.

Erabakia ekainaren 13an jakinaraziko dute antolatzaileek eta argazkien erakusketa ekainaren 19tik 28ra egongo da Bergarako Aroztegi aretoan.

### Zuri-beltzean zein koloretan

Erkidegoan bizi den argazkizale orori zabalik dago parte hartzea eta zuri-beltzean nahiz koloretan aurkez daitezke lanak. Baldintza bakarra: 40x50 zentimetroko kartoi mehean presentatzea. Izan ere, argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia bakoitzak aukeratu behar ditu eta edozein teknika edo prozeduran onartuko dira lanak. Kontuan izan behar da mota bakoitzeko, gehienez, lau argazki aurkez daitezkeela.

### Lau diru-sari

Koloretan lau eta zuri-beltzean beste lau sari banatuko dira: 210, 180, 150 eta 120 eurokoak izango dira, hurrenez hurren. Irabazle guztiek, gainera, garaikurra jasoko dute.

Lanak udaletxera eraman edo posta ziurtatu bidez bidal daitezke, ekainaren 10a baino lehen. Informazio gehiago: 943 76 30 90 (Benito).

### 'Egubakoitzak teilatupean'

Antzerkiak, film laburrak eta ipuin kontaketak gehitu dituzte Bergarako kartzela zaharreko patioan egiten diren *Egubakoitzak teilatupean* ekimenean. Maiatzaren 8an *La maceta, bombones y el figurante* antzezlanaz, 15ean *Hiri asko bere baitan* ikus-entzunezko proiektuaz eta 29an *Marilinda y cia. Mujeres con historia* helduentzako ipuin kontaketaz gozatzeko aukera dago. Saioak 22:00etan izango dira. Sarrera: 3 euro.

### Herri programaren etxez etxeko banaketa

EH Bilduk asteon egin du herri programaren etxez etxeko banaketa, eztabaida soziala eragiteko asmoz. Hiru lan eremu definitu dituzte koaliziokideek: enplegua eta garapen ekonomikoa, ingurumena eta gizarte-ongizatea. Programa prozesu parte-hartzaile bidez osatu dute.

## OHARRAK

**HERRI URRATS: AUTOBUSA**
Martxoaren 10ean izango den Herri Urratsera joateko autobusa 09:15etan aterako da autobus geralekutik; bueltakoa 19:00etan izango da, Senperen. 12 eurotan daude salgai txartelak –euskara elkarteko bazkideentzat 10 euro– Jardun euskara elkartearen egoitzan. Azkeneko eguna: maiatzak 7.

**POL-POL: EZOHIKO BATZARRA**
Maiatzaren 6rako ezohiko batzarra deitu du Pol Pol mendi taldeak, Miguel Altuna Institutuan. 19:00etan lehenengo deialdia eta 19:30ean bigarrena. Gai-zerrendan: kontuen berri ematea; lokal berria erosteko proposamena; estatutuen aldaketa eta galdera eta eskaerak.

**UDALEKU IREKIAK**
Maiatzaren 4tik 22ra bitartean egongo da zabalik udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea. *www.bergara.eus* helbidean edo liburutegian eman daiteke izena. Bestalde, udaleku irekietan lan egiteko dei ere egin du Jardunek. Bidali curriculuma *(gaztejardun@topagunea.com)* edo Errotaldeko bulegotik pasatu.

**GURASO BILERA IPINTZAN**
Batxilergoan matrikula berria egiten duten ikasleen gurasoekin bilera informatiboa deitu du Ipintza institutuak maiatzaren 5erako, 18:30ean, institutuko areto nagusian.

# Gaurtik ikusgai Aroztegin Baionako artisten lanak

## Maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik Galerie des Corsaires elkartekoen koadroez osatutako erakusketa

TXOMIN MADINA | BERGARA

Duela bi urte, 2013ko apirilean, Baionan egin zen *sketchcrawl*-ean izan zuten lehen hartu-emana Beartekoek eta Galerie de Corsaires –Baionako kortsarioak– elkarteko kideek. Orduz geroztik bi taldeen arteko harremana sakontzen joan da eta horren fruitua da gaur bertan, Bergarako Udalak antolatuta, Aroztegi aretoan zabalduko duten erakusketa, Baionakoen artelanez osatuta egongo dena.

**Margolanak, eta gehiago**

Galerie des Corsaires galerian euren lanak erakusteko aukera izaten dute elkarteko kideek, baina bestelako artistei ere zabalik dago. Gaur egun, esaterako, artista kubatarrak ari dira gonbidatzen eta Bergarakoa bezalako erakusketa kolektiboetan ere parte hartzen dute.

Hala, Aroztegi aretoan, elkarteko kide diren Andre Goupillen, Claude Jammaertsen, MICAren, Julia Ratsimandresen eta Michel Chaloten koadroak erakutsiko dituzte, denak ere askotariko estilo eta teknikak erabiliz egindakoak. Horiez guztiez gain, Kubako Oscar Lasseria, Jose Horruitiener eta Nicolas Camue margolarien lanek eta Xiomara Gutierrezen eta Duniesky Loraren eskulturek ere osatzen dute erakusketa.

Gaur, 18:30ean izango da irekiera ekitaldia, eta maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik erakusketa: asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:30era egongo da bisitatu ahalko da; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

**Ekainean, Baionara**

Baionakoen Bergarako erakusketak laster izango du Beartekoen erantzuna: ekainaren 27tik aurrera, Bergarako artisten lanak erakutsiko dituzte Galerie des Corsairesen.

# Eguaztenean irekiko dute 'Arte y solidaridad'

T.M. | BERGARA

Madrilgo artista Siro Lopezen *Arte y solidaridad* erakusketa irekiko dute maiatzaren 6ean udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Baztertutako kolektiboen egoera azaleratu gura du Lopezek erakusketa horrekin, eta bere obrak material eta objektu birziklatuekin egindakoak dira. Mariaren Lagundia Ikastolaren ekimenez antolatutako erakusketa martitzenean, 19:00etan, aurkeztuko dute, eta artista bertan egongo da.

Ikastetxeetako ikasleekin bisita gidatuak egingo dituzte erakusketara, eta 17:00etatik 19:30 aldera edozeinentzat egongo da zabalik, astegunetan eta maiatzaren 22ra arte.

NIRE USTEZ



PEDRO GARITANO

# Etika

Paperak apurtzen, aurkitu ditut Peña-Hermandad Kikioren estatutuak, 50eko hamarkadakoak. Elkartearen helburua zen, gaixoen kasuan, elkarri laguntzea. Gure ikasle denboran –Escuelas Nacionales-etan– ez zegoen Etika irakasgai konkretu bat bezala, baina On Marinoren, On Eliasen eta beste maisu batzuen irakaskuntzak nahiko eredugarriak izan ziren, eta bestela ikusi hamahirugarren artikuluan jasotakoa: "Gaixoak erretitaratzeko muga ordua da 21:00etan, ez bada jai herrikoia edo aparteko jai kultural edo interesgarria, eta beti jokaera zuzena erakutsiz". Kideak behartuta geunden Batzordeko arduradunari jarrera eskandalagarriko kasuak salatzera. Jaso zenezakeen zigorra zen, gaixorik egonez gero, lehenengo sei hilabeteetan ez jasotzea eguneko akordatutako 35 pezetak (0,21 euro), edo 25 pezetak (0,15 euro) gaixotasuna luzeagoa bazen; baina gaixotasun benereoean kasuan, ezer ere ez.

Pentsa daiteke fraile kuadrilla bat ginela; baina ez, gure himnoa zen: "Hemen gaude Peña Kikio, beti presto juergarako, ez dago inor herri honetan guri adarrik joteko... tralalara", eta sarri abesten genuen. Pasatu ziren urteak, eta kide gehienek familiako betebeharrak hartuta, ermandadea desegin eta kartillako dirua, Benefizentziako Etxeari eman zitzaion. Dudarik gabe, gure diruzainaren morala oso urrun zegoen gaurko hainbat inputaturengandik; hark etika bazuen, eta baita estetika ere.

**"Elkartearen helburua zen, gaixoen kasuan, elkarri laguntzea"**



Orfeo de Sabadellekoak, kontzertuan. | ARITZETA ABESBATZA

# Kataluniako ahotsak osoko bilkuren aretoan

## Aritzeta abesbatzak gonbidatuta, zapatuan kontzertua eskainiko du Orfeo de Sabadellek

T.M. | BERGARA

Aritzeta abesbatzakoak 2013an izan ziren Katalunian abesten, eta asteburu honetan Orfeo de Sabadellekoak izango dira bisita bueltatu eta Bergaran kantatuko dutenak. Hala, zapatuan, 20:00etan, kontzertua eskainiko dute kataluniarrek udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**Hamasei doinu**

1904an sortutako taldea izanda, ibilbide luzea du Orfeo de Sabadellek, eta Bergarakoa izango da Euskal Herrian eskainiko duten kontzertu bakarra. Francesc d'Assis Pagesen zuzendaritzapean hamasei pieza abestuko dituzte zapatuan. Prestatu duten programari dagokionez, besteak beste, J.S. Bachen, Franz Schuberten eta Johannes Brahmsen doinuak abestuko dituzte, baina baita hainbat doinu kataluniar ere. Non abestuko duten kontuan hartuta, gainera, euskal musikari ere egingo diote keinurik.

# Saskibaloiko kadeteek ezin izan zuten lauko finaleko finalean sartu

T.M. | BERGARA

Joan den asteburuan jokatu zen Labegaraietan saskibaloiko gizonezko kadete mailako lauko finala. Bi finalaurrekoak zapatuan egon ziren jokoan, eta Soraluce Bergarak Kirol Aukera ISB taldearen kontra jokatu zuen berea. Partidu ona egin arren, bergararrek ezin izan zituzten aurkariak mendean hartu, eta, 59-48 emaitzarekin, finaletik kanpo geratu ziren.

**Easo 00 Haranalde irabazle**

Kirol Aukera ISBk Easo 00 Haranalderen kontra jokatu zuen finala domekan. Oso partidu lehiatua izan zen, eta, hain zuzen ere, Easo 00 Haranaldek irabazi zuen, 60-54.



Zapatuan Soraluce Bergarak jokatu zuen partidua. | MARIAN MELLADO


Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

play&say
San Martin Agirre herri eskola
*Uztailean, diberti zaitez ingelesez.*
**3 eta 12 urte bitarteko umeentzako udako ikastaroak**
**DATAK :** Ekainak 29-Uztailak 24
**ORDUTEGIA**: 10:00–13:00. Nahi izanez gero (09:00–10:00) doaneko zaintza zerbitzua.
**LEKUA:** San Martin Agirre eskola
**INFORMAZIO GEHIAGO:** 943 76 26 29 // bergara@playandsay.org
***Anima zaitez!***



Prentsaurrekoan elkartu ziren herriko pilotari gazte eta beteranoak kanpoko frontoiko harmailetan. | MIREN ARREGI

# Pilotari Txapelketari bultzada eman gura diote

## Aloña Mendik eta txosna batzordeak antolatuta, kanporaketak udan izango dira eta finalak, jaietan

**M.A. / O.E.** | OÑATI

Oñatiko Pilotari Txapelketari bultzada eman gura diote Aloña Mendik eta Txosna Batzordeak, eta, horretarako, hainbat aldaketa proposatu dituzte. Esaterako, ekainera eta uztailera aurreratuko dituzte kanporaketak, eta finalerdiak eta finalak, berriz, San Migel jaien bueltan jokatuko dituzte.

Saria indartu egin du antolakuntzak. Hala, lau finalistek lau t'erdiko finalerako sarrerak eskuratuko dituzte; ez hori bakarrik, aurrez Donostian bazkari bat ere irabaziko baitute. Noski, horrez gain, txapeldunendako txapela ere izango da.

Txapelketa oñatiarrendako izango da; bertakoendako eta bertan bizi direnendako.

**Izen-ematea zabalik**

Ekainaren 2a izango da txapelketan izena emateko azken eguna. Aloña Mendi eta Arrano tabernetan egin ahal izango da hori. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. 16 urtetik gorakoek eman ahal izango dute izena txapelketan, eta gazteagoek gurasoen baimenarekin egin ahal izango dute. Txapelketan parte har dezakete federatutako pilotariek, baina bikote bakoitzean federatu bakarra onartuko dute. Partiduak martitzen eta egubakoitz iluntzean jokatuko dituzte.

Joan den egubakoitzean eman zituzten txapelketari buruzko asmoak eta aldaketak Foruen plazako frontoian. Herriko pilotari zahar eta berriak batu ziren, hori ere badelako txapelketa horren helburuetako bat, guztiak animatzea parte hartzera.

Hala, kanpoko pilotalekuan elkartu ziren, pilotari gazteekin batera, pilotari beteranoak ere. Besteak beste, Juanito eta Josu Osa, Benjamin Maiztegi, Pedro Zelaia, Jose Luis Barrena, Jose Luis Urizar, Iñaki Larral, Xabi Igartua, Julen Iriondo, Joseba Gezalaga, Joseba Orueta, Jose Ramon Azkoitia eta Gari Ibartzabal.

# Ganbararen lagun izateko kanpaina abiarazi dute

## Datorren maiatzaren 9an bazkideei eskainitako kontzertua egingo dute parrokian, 13:30ean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Oñatiko Ganbara Abesbatzako taldeak beste egitasmo batzuei ekingo die laster, eta, erronka horiei "behar bezala erantzuteko", Ganbarako lagun izateko beste era bat aurkeztu dute aste honetan. Lagun motaren araberako abantailak eskaintzen duen kanpaina abiarazi du, horrenbestez, Ganbarak; gutxieneko ekarpena hamabost euro da.

Lagun eta bazkide direnei eskerrak emateko, emanaldi berezia egingo dute maiatzaren 9an parrokian. Bazkide ez direnendako sarrerak Txokolateixan jarri dituzte salgai, zortzi eurotan.


Astelehen iluntzean emandako prentsaurrekoa. | MIREN ARREGI


MIREN ARREGI

## Aurreikuspenak gaindituta

Oñatik ere izugarrizko babesa eman zion Gure Esku Dagok antolatutako Joste Egunari. Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu egin zituen zapatu goizeko ekitaldiak; mezuekin eta irudiekin betetako oihal asko jaso zituzten. Ekainaren 21erako saretze-lanak jarraituko duela adierazi zuten antolatzaileek. Gure Esku Dagok Kale Barrian duen egoitzan izango da aurrerantzean ere ekimenarekin bat egiteko aukera.

## Hezkuntza berezia behar dutenen topaketa

**O.E.** | OÑATI

ZIG –Zereginen Ikasketarako Gelak– geletan diharduten 16 eta 21 urte bitarteko Debabarreneko eta Debagoieneko 40 bat ikasle batuko dira maiatzaren 20an Oñatin. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle horiei helduak direnean autonomo izan daitezen estrategiak ematea da ZIG gelen helburua. Topaketa horiekin, ikasleek euren arteko harremanak sendotzea lortu nahi dute. Topaketan parte hartuko dute: Bergarako Ipintza Institutuak, Elgoibarko BHIk, Zumaiako BHIk, Arrasateko Institutuak, Arrasateko Arizmendi Ikastolak eta Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuak.

Herriaren bisita gidatua, jokoak eta luntxa egingo dituzte, besteak beste.

### Herriko 25 ehiztarik hartuko dute parte biharko txapelketan

Bihar, maiatzak 1, jokatuko dute Zanbranan (Araba) Oñatiko Ehiza Txapelketa. Herriko 25 ehiztarik eman dute izena txapelketan parte hartzeko. 09:00etan hasiko da eta 13:00etan bukatuko da.

### Joseba Arregiren erakusketa zabalduko dute astelehenean

Joseba Arregi *Azpilleta* preso oñatiarrak 22 urtean espetxean egindako margolanen erakusketa zabalduko dute astelehenean, kultura etxean. Maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik.

### Elkar Hezik bat egin du Hezkuntzaren aldeko mundu kanpainarekin

Aurten ere, Elkar Hezi ikastetxeak hezkuntzaren aldeko mundu kanpainan parte hartu du, Elkarhezitzen-ekin batera. Aurten, Senegalgo Pascal-en bisita izan dute, hezkuntzaren egoeraz berba egiteko.

### Pirritx eta Porrotxen beste emanaldi bat antolatu dute

Txantxiku Ikastolaren egunaren barruan, Pirritx eta Porrotx etorriko dira maiatzaren 9an. Lehen saiorako sarrera guztiak agortu dira eta 19:00etakoak salgai daude zortzi eurotan ikastolan.

# Auzoetako jaien sasoia hasiko da gaur Olabarrietan

Auzoko pilota txapelketan 18 bikote lehiatu dira aurten eta finalak domekan jokatuko dituzte

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Iluntzeko zortzietan egingo duten etxafuego jaurtiketarekin hasiko dira gaur, eguena, Olabarrietako jaiak. Bide batez, herriko auzoetako sasoiari ere emango diote hasiera etxafuego horiek, Olabarrietakoaren ondoren etorriko dira-eta, urrira bitartean, beste hainbat auzo eta kaletako jaiak.

**Autobusa kaletik**

Musika, umeendako jolasak, kirol ekitaldiak eta auzo afaria izango dira Olabarrietan domekara bitartean. Musikari lotuta, esaterako, gaur herriko rock taldeen kontzertua egongo da, 21:30ean. Bihar gauerako, berriz, erromeria antolatu dute, Trikimailu taldearekin. Bietara joateko, autobusa egongo da, aurten ere, kaletik. Txaketua taberna parean eta Olakua auzoan izango ditu geldiuneak; gaur, 21:00etik aurrera eta bihar, 22:00etatik aurrera.

Zapatuan, umeendako jolasak izango dira 17:00etan, eta gauean, auzo afaria egingo dute bertako elkartean Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

**Pilotako finalak**

Aurtengo jaietan ere antolatu dute pilota txapelketa eta domekan, maiatzaren 3an, jokatuko dituzte finalak eliza kontrako frontoian. Aurten 18 bikote aurkeztu dira txapelketara, joan den urtean baino lau gehiago. Finala Tatiegi aita-semeek eta Gartzia-Larrea bikoteak jokatuko dute, elkarren kontra, 11:00etan. Bihar, egubakoitza, berriz, benjamin mailako txapela izango dute jokoan zortzi bikotek.

Kirolari lotutako bigarren ekitaldia ere domekan izango da, 12:30ean, auzo elkartearen pareko zelaian, herriko kirol erakustaldia egingo dute. Aurretik, toki berean, Oñatz dantza taldekoen erakustaldia egongo da. Domeka arratsaldean izango da urteroko mus txapelketa ere, eta hantxe aterako dituzte sarien txartel irabazleen zenbakiak.

**Esaera zaharrak**

Datorren asteburuan, San Migel Txikiko jaiek hartuko diote erreleboa auzoetako jaiei. Aurten ere izango da esaera zaharren lehiaketa; domeka da apuntatzeko azken eguna. Hilaren bukaeran Errekaldeko jaiak izango dira.

# Emakumeak eta gatazka armatua hizpide

**O.E.G.** | OÑATI

Susana Arregi oñatiarraren heriotzaren 25. urteurrena beteko da ekainean, eta, horren harira, emakumeek euskal gatazka armatuan izan duten parte-hartzea aztertzeko jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Asanblada Feministak Oñatiko Euskal Memoria Taldearekin batera. Domekan, duela 25 urte Irunberrin gertatutakoaz mintzatu ziren; gaur, eguena, Kurdistango gatazkan emakumeei emandako garrantziaz jardungo dute. Eguaztenean, euskal gatazka armatuan emakumeen parte-hartzearen nondik norakoak aztertuko dituzte eta maiatzaren 12an *Zaintza eta Euskal Herria* bideo emanaldia eskainiko dute. Antixena gaztetxean dira antolatutako ekitaldi guztiak.

# Podiumetik podiumera dabiltza txirrindulariak

Alebin mailako gaztetxoek bost garaipen lortu dituzte denboraldiko lehen bost lasterketetan

**O.E.** | OÑATI

Aloña Mendiko txirrindulari taldeko gaztetxoek ondo baino hobeto hasi dute aurtengo txirrindularitza denboraldia. "Joan den asteburua ere borobila izan zen. Alebin mailakoak podiumera igo ziren, beste behin. Bost lasterketa egin dituzte orain arte, eta bostetan sailkatu dira lehen hiru postuen artean", adierazi du Aloña Mendiko txirrindularitza saileko Ruper Arkauzek.

Gazte mailan lehiatzen diren Aloña Mendi-Ulma taldeko lau txirrindulariak ere ez dabiltza makal. Joan den asteburuan, esaterako, Zarauzko Udaberri Saria lasterketan, hirugarren egin zuen Julen Umerezek. Taldeka, berriz, lehenak sailkatu ziren oñatiarrak. "Lorpen handia izan zen hori. Lasterketa hiruk bukatu zuten, eta, horrez gain, lehenak izan ziren taldeka. Garaipen handia da hori", azaldu du Ruper Arkauzek. Bezperan, zapatuan, Labegaraieta Saria lasterketan izan ziren eta han, laugarren sartu zen helmugan Ekaitz Txintxurreta.



Aloña Mendi-Ulma taldeko laukotea Zarautzen domekan. | RUPER ARKAUZ

**Bergaran eta Lazkaon**

Bihar, Bergaran izango dira alebin eta infantil mailetako txirrindulariak; kadeteek eta gaztetxoek, berriz, Lazkaoko lasterketetan parte hartuko dute zapatuan.

## Etxean, etxekoak

300 korrikalari inguru batu ziren joan den domekan Foruen plazan Aloñako XI. Igoeran parte hartzeko. Horietatik 90 ziren oñatiarrak. Helmugan sartu ziren lehen debagoiendarrak ere, herrikoak: Asier Alonso (2:11:46) eta Maite Zabaleta (2:58:41). "Molinerok min hartzea pena izan da, baina, zorionez, ez da ezer larririk izan. Wecerraren eta Olazabalen lana esperotakoa izan da. Aipatzekoa izan da, duda barik, etxekoek egin duten lana", adierazi zuen lasterketa bukaeran Iban Isastik. Bide batez, parte-hartzaileek antolatzaileak zoriondu zituzten, beraz, etxean etxekoak izan ziren nagusi joan den domekan.



AITZIBER ARANBURUZABALA



AITZIBER ARANBURUZABALA

## NIRE USTEZ



AITOR UGALDE

# Bizikleta

Asko ugaritu da bizikletaren erabilera Oñatin. Ez naiz ari bizikleta mendian edo errepidean kirola egiteko erabiltzeaz, baizik eta lanera, eskolara, dendetara, gaztetxera, kiroldegira, bankura, paseatzera, tabernara, elizara edo kultur etxera joateko erabiltzeaz. Eta poztu egiten nau horrek, neu izan naizelako erabilera hori bultzatu dutenetako bat. Herrian egin beharreko joan-etorriak egiteko autoa utzi eta bizikleta erabilita, denontzat hobeto: erabiltzaileak diru gutxiago gastatuko du eta osasunari bentaja egingo dio, eta denon onerako ez du kerik sortuko, ezta zaratarik ere. Baina bizikleten ugaritze horrek badauka beste aldea ere. Bizikletaren erabilpena batzuetan ez da egokia izaten eta horrek egoera arriskutsuak sortzen ditu, batez ere oinezkoekin. Bizikleten gehiegizko abiadura, oinezkoengatik gertuegi pasatzea; horrelakoak izaten dira. Aurreratu eta hobeto dugu Oñatin bizikletaren kontuan, bizikleta bideetan esate baterako, baina oraindik badago zer egina.

Bizikletaz eroso eta ahalik eta arriskurik txikienarekin ibiltzeko herria izatea nahi dut, baina horretan bizikleta erabiltzen dugunok ere badaukagu erantzukizuna. Bizikletekiko autoek izaten duten nagusikeria askotan salatu badugu, bizikletan gabiltzanok ez dezagun nagusikeri horrekin jokatu oinezkoekin, denon kalterako izango baita.

**"Bizikleten ugaritze horrek badauka beste aldea ere"**

## Petti bakarlariak Pako tabernan joko du etzi, domekan

Petti beratarra bere azken lanarekin etorriko da domekan Pako tabernara, 19:30ean. *Astirtitan* du izena diskoak eta bost abesti ditu. Telletxea anaiak, Karlos Arantzegi, Fredi Pelaez, Estitxu Pinatxo, Joxean Goikoetxea, Arkaitz Cano, Bernardo Atxaga... izan ditu ondoan lan hori egiteko.

# Herrian oinez ibiltzeko eskatu dute ikasleek

## Mugikortasun kontuak landu dituzte Kurtzebarri eskolakoek eta udalbatzari hainbat eskaera egin dizkiote

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aretxabaleta barruko joan-etorrietarako oinez ibiltzea da onena. Horixe ondorioztatu dute Kurtzebarri eskolako 6 eta 16 urte arteko neska-mutikoek, eta astelehenean udalbatzako kideei jakinarazi zieten. Mugikortasunaren gainean ikasturtean zehar egindako lanaren berri izan zuten udal ordezkariek, eta etxeko lanak ere jaso zituzten.


Kurtzebarri eskolako ikasleak udalbatzako kideen aurrean. | MIRARI ALTUBE

**Eskolara oinez**

Kurtzebarri eskolako 6 eta 8 urte artekoek herriko kaleak behatu dituzte, eta astelehenean eskatu zuten hainbat kaletan, Santa Kurtzen esaterako, espaloiak eta zebra-bideak maila berean jartzeko eta beste batzuetatik oztopoak kentzeko.

Herritarren ohiturak aztertu dituzte 8 eta 10 urte artekoek. Azbe lantegi alboko bidegurutzean jarri eta hamabost minutuan zenbatu zituzten autoak eta horietan zihoazen lagunak. Ondorioa izan zen 101 autotan 121 lagun zihoazela. Hori horrela, udal ordezkariei eskatu zieten oinez, bizikletan eta garraio publikoan ibiltzeko samurtasunak eman ditzatela. "Eskolara gehienok oinez joaten gara, beste batzuk patinean eta bizikletan eta oso gutxi autoan", zioen Nere Roldan ikasleak. Herriko komertzioetan erosteko eta herriko zerbitzuak erabiltzeko kanpainak egiteko ere eskatu zuten.

**Igogailua abendurako**

Ezintasunak dituzten herritarren lekuan jarri dira 10 eta 12 urte arteko ikasleak, itsuen eta gurpildun aulkian dabiltzanen lekuan esaterako, eta horrela Aretxabaleta herri irisgarria den aztertu. Oztopo ugarirekin egin dute topo horiek eta eskatu zuten beste batzuen artean, zebrabideak ondo seinaleztatuta egotea, espaloiak zabalagoak izatea hainbat gunetan eta udaletxean igogailua jartzea. "Aurrekontuan sartuta dago igogailuaren proiektua eta gu ez egon arren abendurako jarrita egongo delakoan gaude", jakinarazi zien Ingurumen zinegotzi den Lore Martinez Axpek.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleek, ostera, kutsadura aztertu dute. Aireari dagokionez, jakinarazi zieten kutsadura ertaina dagoela Aretxabaletan, eta zarataren kasuan autoen eragina nabarmen igartzen dela herriko zenbait gunetan.

Udalbatzako kideek adi-adi jarraitu zituzten neska-mutikoen azalpen guztiak. Ikasleek bertsoak abestuta agurtu zituzten agintaldia laster bukatuko duten horiek.

# Udal kudeaketan "erabakigarria" izateko zerrenda aurkeztu du Alderdi Sozialistak

## "Eskarmentua" udal jardunean eta "konpromiso politikoa" uztartu dituzte

**M.A.** | ARETXABALETA

"Eskarmentua" udal kudeaketan eta "konpromiso politikoa" uztartuta osatu du PSE-EEk Aretxabaletako zerrenda. Miren Lana zerrendaburuak jakinarazi du emaitza ona lortzea espero dutela, eta, hala, "erabakigarriak" izatea udal kudeaketan. "Herritar guztiek parte hartu behar duten kudeaketan", gaineratu du.

"Aretxabaletaren alde lan egiteko gogotsu dauden gizon eta emakumeekin osatu dugun zerrenda anitza da", diote sozialistek, eta gaineratu dute: "Aretxabaleta aurrera ateratzeko helburuarekin". Orain zinegotzi den eta zerrendan bigarren doan Jorge de Castroren laguntza izango du Lanak. Bilduren "desgobernuaren" aurrean "benetako alternatiba" direla esan dute: "Lanean eta elkarrizketan oinarritutako proiektu sinesgarria dugu, betiere, herritarren pluraltasuna errespetatuta".


Miren Lana alkategaia. | PSE-EE

**PSE-EE-REN ZERRENDA**

1. Miren Lorea Lana
2. Jorge de Castro
3. Itsaso Andrade
4. Jose Manuel Gonzalez
5. Carmen Corales Fouz
6. Angel Morales
7. Maria Alvarez
8. Higinio Rozas
9. Carolina Garcia
10. Casimiro Romero
11. Iñaki Garcia
12. Emilio Merino
13. Miren Atxutegi

NIRE USTEZ


**HECTOR PRIETO**

# Amets egitea da bidea

Orain dela aste pare bat elkarrizketa labur bat entzun nuen irratian eta zer pentsatua eman zidan. Elkarrizketatua 98 urteko euskal miliziano bat zen. Eta Elgetan egitekoak ziren 36ko gerra zibilean Intxortan izandako borrokaren urteurreneko ekitaldien barruan merezitako omenaldia jasotzeko puntuan zegoen.

Haren istorioa benetan gogorra zen. Bizitzaren kontakizun osoak jarri zizkidan ileak tente, baina behin istorioa osorik entzunda zati bat geratu zitzaidan subkontzientean. Elkarrizketaren une batean zera esan zuen: 16 urterekin Batzorde Komunistetara afiliatu zela, eta, 20 urte luze kartzelan pasatu arren, gaur egun oraindik, 100 urte betetzear zela, ametsetan sinesten zuela.

Orduan ulertu nuen solidaritate, justizia eta askatasun desioak ez direla ideia hutsak, ez direla ezinezko ametsak, baina ezta filmetako "amets amerikarra" ere. Amets horiek bizitzako bidea dira; egia da ezinezkoak diruditela, baina utopia horiei jarraituta aurrera egiten dugu konturatu gabe. Horregatik, zin egin nion neure buruari mundu hobe baten aldeko itxaropena sekula ez dudala galdu behar. Askok gura dugun etorkizun hobe hori eraikiko duen bidetik pauso tinkoarekin aurrera egiteko gertu nago ni, behintzat.

### Otala Zelaiko paella lehiaketan parte hartzeko Arkupen eman behar da izena maiatzaren 15erako

Maiatzaren 17an da Otala Zelai eguna, eta orduan egiten den paella lehiaketarako izen-ematea zabalik dago. Arkupera jo behar da, eta bost euro ordaindu; azken eguna maiatzaren 15a da. Talde bakoitzean gehienez hiru lagun egongo dira –gutxienez bat 18 urtetik gorakoa–, eta zortzi lagunendako paella gertatu beharko dute. Eguraldi txarra eginez gero bertan behera geratuko da lehiaketa eta dirua itzuli egingo dute antolatzaileek.

# "Zintzotasunez" dator Irabazi taldea herrira

## Luis Gomez buru duen taldeak batzar irekia egingo du herritarrekin programa zehazteko

**M.A.** | ARETXABALETA

Irabazi-Ganar ekimen politiko eta sozialak ordezkaritza lortu gura du, Udalean erabakiak hartzeko ezkerreko, ekologiaren eta alternatibaren ikuspegitik. Luis Gomez (Arrasate, 1968) buru duen taldeak adierazi du "zintzotasunez" eta Irabazi barruan adostutako printzipioekin egingo duela lan Aretxabaletaren alde.

**Batzarra herritarrekin**

Herritarren parte-hartzea bultzatu gura dute; hori horrela, datozen asteetan herritarrekin batera batzar irekia egingo dutela jakinarazi dute, aipatutako printzipioak eta programa zehazteko eta iritziak eta kezkak jasotzeko.


Gomez eta Gonzalez. | IRABAZI

**IRABAZI-REN ZERRENDA**

1. Luis Gomez
2. Arkaitz Gonzalez
3. Nagore Eraña
4. Marta Caballero
5. Jaime Mugika
6. Miren Crescencia Ballona
7. Martin Alejandro Biurrun
8. Inmaculada Rodriguez
9. Jesus del Fresno
10. Teodora Delgado
11. Ibon Lopez
12. Ana Isabel Riaño
13. Eulogio Diez

# Moda kontuak izango dira protagonista maiatzean Arkupen

## Modubat marka aurkeztuko du Katalin Antxia aretxabaletarrak hilaren 13an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ekitaldiz gainezka dator maitzeko kultura egitaraua; asko Arkupen ikustekoak izango dira eta beste batzuk kale bazterretan.

Oraingoan moda kontuak izango dira erakusketa aretoan. Katalin Antxiak (Aretxabaleta, 1988) Modubat marka aurkeztuko du hilaren 13an: "Zer garen azalduko dugu eta *Modubat* magazinaren lehen zenbakia banatu ere bai", argitu du Antxiak. Eta hilaren 24tik 31ra bitartean, *Moda Labo* erakusketa izango da: "Ikusgai egongo dira ikasleek nirekin egin dituzten lanak; eta badago zer ikusi!", dio.


Katalin Antxia lanean. | GOIENA

### Musika eskolakoen emanaldiak

Musika ekitaldiei dagokienez, sei emanaldi eskainiko dituzte Leizarra musika eskolako ikasleek. Maiatzaren 4an eta 5ean dantzan jardungo dute eta 6an perkusio erakustaldia izango da. Hilaren 12an eta 13an trikitilarien, pandero-joleen eta akordeoilarien txanda izango da, eta ondoren izango dira txirularien emanaldia eta biolin eta biolontxelo-joleena.

Maiatzean ez da zinemarik izango, baina bai proiekzio bi eguenetan. Hilaren 14an Gure Esku Dago ekimenak egindako *Jostunak* emango dute, 19:00etan. Eta 21ean, Goiener elkarteko kideen eskutik *OligopolyOff* ikus-entzunezkoa izango da, energia subiranotasunaren gainekoa hain zuzen.

Antzerkiak ere izango du lekua Arkupen. Hilaren 8an, egubakoitza, 22:00etan, *La extraña pareja* eskainiko du Txineska antzerki taldeak –sarrera, lau euro–. Domekan, hilak 10, ostera, *Barbantxo* izango dute neska-mutikoek, 17:00etan –sarrera, hiru euro–. Eta hilaren 29an, Txalo taldeak *Erdibana* eskainiko die helduei.

### Beste ospakizun batzuk

Arkupetik kanpo ere egongo da zer ikusi eta zerekin ondo pasatu maiatzean. Hilaren 17an, ohitura den legez, Otalai Zelai eguneko erromeria egingo dute Aozaratzako zelaian; 23an, Atzegiko kideen festa izango da; 24an, Demetrio Iriarte txistularien mendeurreneko ekitaldiak hasiko ditu Aretxabaletako txistulari taldeak Gasteizko bandaren emanaldiarekin; 30ean, Debagoieneko Trikitixa eguna ospatuko dute; eta hilabeteko azken domekan, hilaren 31n, Haur Dantzarien Eguna izango da.

# Maider Aizkorbe: "Zoragarria izan da Emarock eguna, jende mordoa elkartu da gurean"

M.A. | ARETXABALETA

"Agertokira igotzen garenean badirudi garrantzitsuena dela gauzak ondo edo gaizki egiten diren, eta, hori gutxienekoa da; garrantzitsuena da agertokia konkistatzea eta espazio hori geureganatzea gure emetasun horretatik", zioen Ines Osinaga musikariak; eta zapatuan aise bereganatu zituzten emakumeek bai agertokia, bai ikusleak.

Emarock egunak herritar mordoa gerturatu zuen herriko bi agertokietara eta giro bikaina sortu zen horien inguruan. Hori horrela, Berdintasun zinegotzi Maider Aizkorbe oso pozik dago: "Zoragarria izan da. Kanpotik jende mordoa etorri zen gurera, eta herritarrak ilusionatuta eta gogotsu zeuden". Kontzertuak izan ziren –hainbat estilotakoak–, hitzaldia, bazkaria 300 lagunendako eta tailerrak umeendako.

### Pausoz pauso

Berdintasunaren aldeko ibilbidean beste pausotxo bat izan da, Aizkorberen esanetan: "Hasi besterik ez gara egin, ibilbidea luzea da-eta. Baina egia da beste ukitu bat eman diogula berdintasunari. Orain arte ere egin izan da lana, baina barrura begira, eta kalean ez zen ikusten. Azken lau urteotan, ostera, emakumeen txirrindularitza bira dela, Fundantz ikuskizuna dela eta orain hau… kalean lekua egin diogu berdintasunari". Eta Emarock egunak jarraipena izatea gurako luke: "Merezi du halako proiektu bat Euskal Herrian zabaltzea".


Pottors Ta Klito taldeko kantaria ikusleen aurrean. | IRATXE BENGOA

# Bigarren geratu da Elortondo Bilboko txapelketan

M.A. | ARETXABALETA

Adimen urritasuna dutenek lehenengo karate txapelketa jokatu zuten Bilboko Bizkaia pilotalekuan zapatuan, eta bigarren geratu zen Alex Elortondo aretxabaletarra. Giro bikaina izan zuten txapelketan eta UDAko kirolaria oso pozik itzuli zen garaikurrarekin. "Zorionak, Alex! Entrenamendu saioetan kide dituzun karatekek halaxe jarraitzeko aurrerantzean ere esan gura dizute", jakinarazi dio Odilo Vazquez entrenatzaileak.


Elortondo garaikurrarekin. | O. VAZQUEZ


M.A.

# Irakur maratoia astea agurtzeko

Irakur maratoiak agurtu du Kurtzebarri eskolako Literatura Astea. Dagoeneko 24. aldiz egin dute irakurketari eskainitako eguna, eta aurten ere ikasleekin batera, irakasleek, gurasoek eta gainerako hainbat herritarrek hartu dute parte. Eskolako kideek gerturatutako guztiei eskerrak eman gura dizkiete.


GOIENA

# Loreontziak Otalora apaintzeko

Zuhaitzekin eta zuhaixkekin apaindutako loreontziak jarri dituzte Otalora kalean azken egunotan, loreontzi handiak eta koloretsuak. Halaxe apaindu gura izan du Udalak oraintsu berritu duen kalea, eta harrituta geratu dira herritarrak: batzuei alaiak iruditu zaizkie eta beste batzuei ez zaie batere gustatu. Hori bai, zeresan handia eman du.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Ohiturari jarraituz Atxorrotx eguna ospatuko dute domekan

## Kasualitatez, lehen ospatzen zen egunean izango da jaia, maiatzaren 3an, Gurutze Santuaren egunean

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Atxorrotx eguna domekan ospatuko dute, maitzaren 3an. Hala, aurten ere herritarrak mendiko botak jantzi, motxila hartu eta Atxorrotx mendira igoko dira egunaz disfrutatzera. Hainbat bidetatik igo daiteke Atxorrotxera, baina, batez ere, Bolibar auzoan gora igoko da jendea egunean.

09:00etan goizerezia egingo dute txistulariek, herritarrak esnatzeko, eta 09:30ean Atxorrotxera igotzen hasiko dira. 11:00etan meza izango da Atxorrotxeko Gurutze Santuaren ermitan, eta, ohiturak dioen moduan, ekaitzak uxatzeko, kanpaiak joko dituzte bertaratzen direnek goiz osoan zehar. Meza amaitzean, bailara osoa bedeinkatuko dute; Atxorrotxeko haitz puntan otoitz txiki bat egingo du apaizak eta ur bedeinkatua botako du lau haizetara. Ondoren, mokadutxo bat jan eta zerbait edateko aukera izango da bertan jarriko duten tabernan.


Iaz ospatu zen Atxorrotx egunean jende asko batu zen. | GOIENA

Musikarekin eta lagunekin goiza mendian pasa ondoren, arratsaldean festak herriko plazan jarraituko du. 18:00etan, herritarrek etxean egindako tortillak salduko dituzte. Hala, antolatzaileek etxean egindako tortillak plazara eroatera animatu nahi dituzte herritarrak. Izan ere, Atxorrotxen goizean egongo den tabernan eta plazako tortillekin batutako dirua Eskoriatzako Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundearendako eta Atsegi taldearentzako izango da.

Herritarrek tortilla-pintxoak jaten dituzten bitartean, erromeriak girotuko du plaza. Jainaga eta Narbaiza trikitilaria eta pandero-jolea izango dira musikaz girotzen, eta dantzarako tartea izango da.

### Gurutze Santuaren egunean

Ohiturari jarraituz, Atxorrotx eguna Gurutze Santuaren egunean ospatzen zen lehen, maiatzaren 3an. Gaur egun, maiatzeko lehen domekan ospatzen da, eta aurten, ohiturak dioen eta lehen ospatzen zen egunean izango da ospakizuna; maiatzaren 3an, alegia.

### EAJkoak ere Atxorrotxen

Eskoriatzako EAJko alderdikide eta hautagaiek ekitaldia antolatu dute domekarako. Bailarako herritarrei gonbidapena egin diete alderdikoek.

10:00etan Eskoriatzako batzokian elkartuko dira, eta 11:00etan Atxorrotxera igotzen hasiko dira. Gero, goiza median igaro ondoren, jaitsi, eta 13:00etan salda eta txistorra izango da batzokian.


Martitzenean egin zuten apirileko osoko bilkura. | I.B

# Kiroldegiko garajeak errentan emango dituzte

## Hainbat arlotan diru laguntzak ematea onartu du udalbatzak apirileko osoko bilkuran

**I.B** | ESKORIATZA

Apirileko ohiko osoko bilkuran hamalau gai jorratu dituzte. Horietako bat Udal Kiroldegiko garajeak errentan jartzea eta lehiaketara eramatea izan da. Iazko errenten kontratuak amaituta, ekainaren 30ean berriro irtengo da Manuel Muñoz kiroldegi azpiko garajeak alokatzeko lehiaketa. Errentan hartu nahi dituenak maiatzaren 22 arte izango du eskaera egiteko, eta 46 euro ordaindu beharko ditu hilero alokairuagatik.

### Diru laguntzak onartuta

Bestalde, hainbat arlotarako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak hasiera batean onartu zituzten. Euskaltegietan ibili diren Eskoriatzako ikasleei, ordaindutako matrikularen dirua bueltatuko diete, baldintza batzuekin; bereziki, asistentzia minimoa bete badute eta kurtsoa amaitu badute. Bestalde, lehen aldiz euskaltegian matrikulatzen direnek ere laguntza gehigarri bat izango dute matrikula ia osorik ordaintzeko. Hala, poliki-poliki euskara herrian normalizatzeko.

Gazteei, gizarte zerbitzuetan diharduten elkarteei eta garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetza programei ere finantzatuko diete ekonomikoki, aldaketa gabe, urtero moduan.

### 2014ko aurrekontuak

Era berean, 2014ko aurrekontuen gaineko hainbat datu aipatu zituen Beñat Herce alkateak. 2014ko aurrekontuen likidazioen sarreretan 369.000 euroko gehigarria izan da eta urteko emaitza, berriz, 730.792 euro. Gastu orokorren diru-zantza gerakina, berriz, 1.224.528 euro izan da. Horietatik, 500.000 euro 2015era erantsi dituzte, 2014an onartu baina gauzatu barik geratu diren proiektuendako.

Aurrekontuen datuak aipatuta, oso balorazio positiboa egin zuen alkateak: "Kudeaketa ekonomiko-finantzario zorrotza izan da 2014koa. Horrek gastuen kontrol ona ahalbidetzen du, eta gastu gehigarri eta inbertsio proiektu berriak ahalbidetzen ditu etorkizunari begira".

# Talde gaztea osatu du Eskoriatzako Irabazik

**I.B** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Irabazik udal hauteskundeetara joango diren hautetsien zerrenda aurkeztu du. "Herritarrekin egingo dugun kontratua izango da gure hauteskunde programa". Halaxe diote Eskoriatzako Irabazitik. "Gardentasuna, etika, zintzotasuna eta Irabazin onartutako irizpide programatikoak" aintzat hartuta, gehitu dute.


Eskoriatzako Irabaziren zerrendakideak. | IRABAZI

Datozen asteetan herritar guztiei irekitako batzar bat deituko dutela diote, udal hauteskundeetarako proposamenak "denen artean" adosteko.

### Hautagai zerrenda osatu dute

Eskoriatzako Irabaziren zerrendaburua Xabier Villarreal (Legazpi, 1975) da. Independente gisa parte hartuko du politikan aurten lehenengoz eta alderdia osatuko duten gainerakoak honako hauek dira: Rafael Bernal, Blanca Merchan, Maria Elena Martinez, Javier Zugasti, Gema Mancebo, Manuel Mata, Ana Guijarro, Beatriz Rubio, Francisco Corbal, Maria Manuela Merino eta Juan Carlos Martin.


I.B

## Bittor Oroz batzokian izan da

Martitzenean, Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikarako sailburuordea Eskoriatzako batzokian izan zen, EAJk gonbidatuta. Ataundarra landa garapenaz, biomasaren garrantziaz... aritu zen. Gai askoren inguan hitzegin zuen, herria inguruko baserriekin uztartzearen garrantziaz esaterako.

# Kalebarren itxita dago ibilgailuendako konpontze lanengatik maiatzera arte

Bederatzi mila euroko aurrekontua dute lanek; zorua berdindu eta galtzada-harriak jarriko dituzte berriro

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martxa onean doaz Antzuolako Kalebarrengo lanak. Ia astea daramate langileek galtzada jasotzen eta berritzen. "Zorua berdindu" egingo dutela eta "homogeneoago" bilakatuko dutela azaldu du Antzuolako Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Hala, Udalak Kalebarrengo zubitik Herriko Plazarainoko bidea gutxienez maiatzaren 31ra arte itxita mantenduko du ibilgailuendako. Izan ere, egindako lana ondo finkatu behar dela azpimarratu dute.



Arin tabernatik plazara bitartean egingo dute lan handiena. | MAIDER ARREGI

**Galtzada-harriak**

Kalebarrengo zorua ez dela osorik altxatuko baina gehiena jasoko dela adierazi du Hirigintza teknikariak. "Orain bi eratako piezak daude. Berritu ondoren galtzada-harriak izango dira guztiguztiak".

Hasiera batean lur guztia jasotzea zela asmoa azaldu du teknikariak, baina, dena jasotzean, puntu batzuk hobe zela ez jasotzea ikusi zutela argitu du. "Egingo diren lanekin, baina, dena ondo kokatuta geratuko da eta ez da inolako irregulartasunik eta zulorik izango errepide tartean", azpimarratu du.

**Ibilgailuendako itxita**

Errepidea hilabetez itxita egongo da, baina lanok ez dute horrenbeste iraungo. Izan ere, Valen Moñux teknikariak azaldu du kontu handia izan behar dela lanokin; egindakoa ondo finkatu beharra dagoelako pisua gainean jarri aurretik. Horregatik, autoek duten pisuagatik, ezingo dira epe batez bertatik igaro. Ondo planifikatu beharreko lanak direla argitu gura izan du.

> **DATUA**
> **9.000**
> EURO
> Kalebarrengo lanek bederatzi mila euroko aurrekontua dute.

**Lanak bigarrenez**

Hirigintza teknikariak gaineratu du ez dela lehen aldia obra hori egiten dena. Azkenekoz, obra egin eta herriko jaiak gertu zeundelako zirkulazioari behar baino lehenago ireki zioten errepidea. Ondorioz, kalteak jasan zituzten egin berri zeuden lanek; ez zen errepidea guztiz homogeneo eta zulorik gabe geratu. Hala, akats bera gerta ez dadin, Kalebarren itxita izango da maiatz bukaera arte, gutxienez.

## Bideoklipa, erabakitzeko eskubidearen alde

Gure Esku Dagok antolatuta, zapatuan Joste Eguna ospatu zuten antzuolarrek. Josteko makinekin ateratako argazkiekin mosaikoa irudikatu zuten; ondoren, bideoklipa grabatu zuten jositako oihalekin. GEDk bere webgunean zintzilikatu du. Helbide honetan ikus daiteke: *https://gureeskudago.eus.*



MARKEL CASTELO



Ikusmina sortu zuen herritarrengan bigarren eskuko azokak. | MARKEL CASTELO

# "Arrakastaz" egin dute lehen merkatu txikia

Bigarren eskuko azoka berriro errepikatzeko gertu azaldu dira Saskiolako antolatzaileak

A.A. / M.A. | ANTZUOLA

Euriak baldintzatu bazuen ere, harrera "bikaina" izan du lehenengoz egin zuten bigarren eskuko azokak. Denetik zegoen antzuolarrek eta inguruko herrietatik etorritakoek jarritako hamar saltokietan: arropak, jostailuak, bitxiak, margolanak... Horiek guztiak merke-merke erosteko aukera izan zen pasa den barikuan. Antolatzaileek aurrerago berriro errepikatuko dutela azaldu dute.

## Trokeo dantza eskaini zioten 'Mozkorra parregarri' operako kideek Legorbururi

M. A | ANTZUOLA

Omenaldi hunkigarria eskaini zioten Gervasio Legorburu zenari eta familiari *Mozkorra parregarri* operako artistek. Izan ere, operako eszena bat propio egokitu zuten eta Trokeo dantza irudikatu zuten artistek Gervasio Legorbururen omenez. Bukaeran, Valen Moñuxek emozioz beteriko agur-hitzak eskaini zituen: "Antzuolan lan egiten dut eta berezia da arrazoi askorengatik niretako une hau; Trokeo dantzak Gervasio gogorarazten dit". Ondoren, Narbaitza ahizpek, Rosak eta Blankak, bertsoa eskaini zioten Legorbururi. Juli Igartza, alarguna, eta Xabier Legorburu, semea, ere igo ziren Torresoroako agertokira. *Mozkorra parregarri* operako talde argazkia eman zioten oroigarri.



Legorbururen alarguna eta semea operako artistekin batera. | JONE LARRAÑAGA

## Brigadako bi peoi kontratatzeko lan eskaintza deialdian izena eman daiteke maiatzaren 6ra arte

Obra eta instalazio publikoak mantentzeko kontratatuko ditu Udalak bi peoi. "Kontratazio hauen helburua da Antzuolan dagoen langabezia tasa altuaren kontra neurriak hartzea", dio Udalak. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 6ra arte dago zabalik. Antzuolan erroldatua egotea, eskola ziurtagiria izatea eta B-1 gida baimena izatea, besteak beste, nahitaezkoak dira. Gainontzeko baldintzen xehetasunak *www.antzuola.com* webgunean.

# Oihalak elkarren artean josiz esku handi bat irudikatu dute plazan

Erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria egin dute aramaioarrek, Joste Egunaren barruan

**A. E.** | ARAMAIO
Ekitaldi nagusiari hasiera Paula Amilburuk eta Zigor Enbeitak eman zioten bertsotan. Gero, boxeo saio batekin inposizioa irudikatu zuten. Iparraldeko Zudairitik etorritako lagunek Aramaioko herriarekin anaitzeko kantuan egin zuten; ondoren, Papargorri herriko txikienen abesbatzak hartu zuen lekukoa. Musikak eta dantzak protagonismo berezia izan zuten Joste Egunean.

**Oihalak josi zituzten**
Telekin Gure Esku Dagoren eskua irudikatu zuten aramaioarrek, eta gero, bi jostunek oihalak josi zituzten.


Oihalak elkarren artean josiz eskua irudikatu dute. | AMAIA TXINTXURRETA

### Gaur da Bilbora joateko irteeran izena emateko azken eguna

Alaiak erretiratuen elkarteak irailaren 4an Bilbora egingo duen irteerara joan nahi duenak gaur izango du azkeneko eguna 41 euroak elkartearen kontu korrontean sartzeko. Bidaiaren kostua, guztira, 80 euro izango da. Gainerakoa abuztuan ordaindu beharko da. *Sister Act* musikala ikusiko dute Arriaga antzokian.

### Kintada egingo dute 1953-1954 urteetan jaiotakoek, Dukienan

Maiatzaren 16an, zapatua, kintada egingo dute 53-54 urteetan jaiotakoek. Bazkaria egingo dute Dukiena jatetxean, 14:30ean. Aurretik, goiza girotzeko, Eki tabernan elkartuko dira, 13:30ean. Izena emateko 677 72 99 09 telefono zenbakira deitu beharko da (Martin). Komeni da lehenbailehen deitzea izena emateko.

# Sukaldearen bueltan hasiko dute Lorabarri Astea martitzenean

Ortutik Ahora kolektiboak bertako eta garaiko produktuak nola prestatu erakutsiko du

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO
Martitzenean hasiko dute 2015eko Lorabarri Astea. Ortutik Ahora irabazi asmorik gabeko elkarteak sukaldaritza ikastaroa eskainiko du. Bertako eta garaiko produktuak eta produktu integralak nola prestatu erakutsiko dute. "Betiko sukaldaritza zabaltzea" izango da asmoa, Jokin Orobengoa antolatzailearen esanetan.

Eguaztenean, Jesus Arregi fisikari astronomoak ilargiaren mugimenduen gainean berba egingo du, eta ilargiaren faseak zeintzuk diren azaldu.

**Zigilu ekologikoaz**
Eguenean, Euskal Herri mailan agroekologikoan lan egiten duen EHKO kolektiboak egingo du hitzaldia. "Lan baldintza egokiak, esplotazio familiarrak, ekologikoan lantzearen printzipioak... aztertuko dituzte", dio Orobengoak. Egubakoitzean aurtengo gazta dastaketa egingo dute, modu gidatuan. Zehazteke dago ordaindu egin beharko den edo ez.

Zapatuan Lorabarri azoka eta bigarren eskuko azoka egingo dute. Maiatzaren 5era arte entrega daitezke arropak Udaletxean.


Iazko Lorabarri azoka. | GOIENA

**LORABARRI EGITARAUA**

**MAIATZAK 5**
**16:30** Sukaldaritza ikastaroa erretiratuen elkartean.

**MAIATZAK 6**
**18:30** Jesus Arregik *Ilargiaren mugimenduak* hitzaldia, Sastiñan.

**MAIATZAK 7**
**18:30** EHKO kolektiboaren hitzaldia, Sastiñan.

**MAIATZAK 8**
**18:30** Gazta dastaketa, Sastiñan.

**MAIATZAK 9**
**11:00** Lorabarri azoka Aramaioko plazan. Baita bigarren eskuko arropen azoka ere.

**MAIATZAK 10**
Itturralde baserrira eta Euzki okindegira bisita. Ordua, zehaztu barik.

**MAIATZAK 11**
**18:30** Jagoba Errekondoren hitzaldia, Sastiñan.

**Rafael Bengoa** | EAJko alkategaia

# "Gestioan esperientzia duen jendearekin osatu dugu EAJren zerrenda"

Udalaren gastuaren "murrizketa eta kontrola" izango da jeltzaleen programaren oinarrietako bat

**A.E.** | ARAMAIO
Rafael Bengoa izango da EAJren alkategaia Aramaion. Bengoak badu esperientzia udal jardunean; izan ere, zinegotzi izan zen 1983tik 1987ra bitartean.

**Nola hartu duzu erronka?**
Alde batetik, kosta egin zait baiezkoa ematea. Espero ez nuen gauza bat izan da; baina lagunen eta, batez ere, familiaren bultzadarekin eta adostasunarekin konprometitu egin naiz.

**Osatu dituzue EAJren zerrendak. Nolako profileko jendea dago?**
Gestioan esperientzia duen jendea dagoela esango nuke. Adinari dagokionez, jende gazte-gaztea ez da, baina 60 urtekoak ere gazteak izan daitezke.

**EAJren programa zertan oinarritu-ko da?**
Gastuen murrizketa edo kontrola behar dugu. Bestalde, euskara mailan gestio integrala egin behar dugu. Kultura mailan, polo interesantea daukagu hemen goian: eskola, kiroldegia eta kultura etxea. Uste dut hemen kultura polo bat egin beharko litzatekeela. Bestalde, Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin, auzoak azpiegitura eta zerbitzuetan dotatu behar ditugu. Kaleko maila berean egon beharko lukete; auzoei garrantzia eman nahi diegu. Uraren gestio integrala ere egin beharko litzateke. Ur garbien zerbitzua hobetu egin beharko litzateke eta, horrez gainera, saneamenduko urei bueltan bat eman beharko litzaieke. Eta, azkenik, Aldundiarekin lan sakona eta serioa egin behar dugu Aramaion nagusien egoitzaren zerbitzu batzuk ezartzeko. Izan ere, gaur egun ez dugu egoitzarik, eta horrek asko mugatzen gaitu.


Rafael Bengoa. | AMAIA TXINTXURRETA

**Udal jardunean zer hobe daiteke?**
Berebiziko garrantzia duten gauza batzuk daude: Mendiolako IBZ zentroa indartu egin behar da, eta han egin den inbertsioa justifikatu. Urbanizazio plana martxan jarri beharko litzateke, hamar urteko atzerapena dauka-eta. Bestalde, hirigintza aldetik seriotasuna behar da: hainbat gauza lizentzia barik eta baimen barik egiten dira Aramaion. Hori arautu egin behar da. Azpiegituren mantentze-lan integrala egin beharko litzateke. Eta biomasaren proiektua birplanteatu egin beharko litzateke.

## OHARRAK

**ESPALOIAN ZAPATUAN**
Taylor magoak magia eta globoflexia saioa egingo du umeendako bihar, 17:00etan. Sarrera hiru euro da.

**ARALAR INDEPENDENTEAK**
Martitzenerako, maiatzak 5, batzar irekia deitu dute zortzi urteotako kudeaketaren berri emateko. Udaletxean, 19:00etan.

**ERRETIRATUEN IRTEERA**
Xalbadorpe elkarteko erretiratuek egun-pasa egingo dute Ordizian eta Donibane Lohizunen eguaztenean, maiatzak 6. Irteera 08:45ean da.

**'MOZKORRA PARREGARRI' ESPALOIAN**
Bergarako musika eskolako kideek *Mozkorra parregarri* opera komikoa eskainiko dute maiatzaren 9an, 19:00etan, Espaloian. Sarrera 15 euro da; aurrez, 12 euro.

**AUTOBUSA HERRI URRATSERA**
Goibeko elkarteak autobusa antolatu du maiatzaren 10erako. Irteera Elgetatik 09:30ean da eta itzulera Senperetik 18:30ean. Prezioa hamar euro da; Goibekoko bazkideendako, bost euro. Txartelak salgai daude maiatzaren 7ra arte Haizean eta Espaloian.

# Elgetako argazki artxiboa osatzeko lehenengo pausoak

### Martxan da Joaquin Gastesiren negatiboak digitalizatzeko prozesua

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran udalbatzak aho batez adostu zuen Joaquin Gastesiren artxiboa digitalizatzeko prozesua martxan jartzea. "Asmoa litzateke Gastesiren artxiboarekin hasi eta hiru fasetan Elgetako argazki artxiboa osatzea", esan du Oxel Erostarbe alkateak. Uste dute 4.500 bat argazki izango dituela Gastesiren artxiboak. Udalak gertu ditu ehun bat, eta *Elgeta.org* atarian daude ikusgai atzo ezkero. Josetxo Arantzabalen esku dago, gaur egun, Gastesiren artxiboa. Hala, hitzarmen bat sinatuko du Udalak Arantzabalekin. Digitalizazio prozesua egiteko 3.500 euroko diru lerroa du Udalak aurreikusita 2015eko aurrekontuan.

Gastesiren artxiboa berritu ostean asmoa da *Goibekokale* aldizkarirako ateratako argazkiak digitalizatzea. Prozesuaren hirugarren fasean, herritarrek aukera izango dute etxean dituzten argazkiak Elgetako argazki artxibora gehitzeko.



Gastesiren artxiboko negatibo batzuk. | JOSETXO ARANTZABAL

**Hondakinen sailkapena**
Otsaileko eta martxoko sailkapen datuen berri eman zuen Erostarbek osoko bilkuran. Urtarrilean %78,42 izan bazen otsailean %77,15 eta martxoan %80,11 izan da. Datu onak direla esan zuen.

**Hauteskunde-mahaia**
Eta Udalak martitzenean egin zuen maiatzaren 24an Elgetako hauteskunde-mahaian egotea egokituko zaien herritarrak aukeratzeko zozketa —emaitza ondoko koadroan. Mahairako izendatutako herritarrek jakin behar dute mahaian ez egoteko kausak (arrazoiak) izanez gero maiatzaren 9ra arte dagoela zabalik alegazio epea.

**MAHAIKIDEAK**

**IZENDATUTAKO HERRITARRAK**
Mahaiburua: Maite Saez de Maturana
Lehen mahaikidea: Ana Maria Ormaetxea
Bigarren mahaikidea: Enrique Isasi

**LEHEN ORDEZKOAK**
Mahaiburua: Lierni Urbistondo
Lehen mahaikidea: Mari Carmen Landakorta
Bigarren mahaikidea: Fernando Albeniz

**BIGARREN ORDEZKOAK**
Mahaiburua: Jon Navarro
Lehen mahaikidea: Emilio Rubio
Bigarren mahaikidea: Ascensión Moreno

### Hamahiru herritarrek hartuko dute lursaila baratze-parkean

Martitzenean, maiatzak 5, jasoko dituzte baratze-parkeko giltzak eta lanabesak. Udalak batzar irekia deitu du 18:00etarako, udaletxean. Oraingoz, hamahiru herritarrek egin dute eskaera, baina udal arduradunek jakinarazi dute hogei lursail egokituko dituztela. Beraz, interesatu gehiago egonez gero, udaletxean eman behar dute izena. Maiatzaren 5eko batzarra irekia da. Bertan, lursailak ikusteko aukera ere emango dute.

### Eusko Jaurlaritzaren babesa euskara hutsezko akten auzian

Eusko Jaurlaritza pertsonatu egin da Elgetako Udalak bere aktak ele bitan ez bidaltzeagatik epaitegian duen auzian. Epai-gaia interes orokorrekoa dela argudiatuz Elgetako Udaletik abiatu zen eskaera eta apiril hasieran iritsi da erantzuna. Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak Elgetako Udalari jakinarazi dio Eusko Jaurlaritza gai horrekin lotuta Donostiako epaitegian abian den errekurtsoaren prozeduran pertsonatu dela.



ELGETAKO LIBURUTEGIA

## Liburutegi zerbitzua ezagutzen

**Irakurketa gomendioak, lehiaketak, sariak, akrobazia ikuskizuna... antolatu dituzte liburutegitik aurreko egunetan, eta aste honetan eskolako ikasleen bisita izan dute. Astelehenean seigarren mailako ikasleak izan ziren bertan eta atzo, eguaztena, lehenengo mailakoak. Eskolako kultura hamabostaldiari amaiera emateko ekintza izan da.**

### Dantza afari tematikoa maiatzaren 8an

**KOMUNITATEA GOIENA**
HERRIXA DANTZA | ELGETA

Herrixa Dantzan ekimenak dantzan elkartzeko formatu berria antolatu du: dantza afari tematikoak. Lagun arteko afari-pasa eta dantza Europako lurralde bat edo dantza genero bat hartuta. Lehenbiziko saioa maiatzaren 8rako dago deituta, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Gaia: Portugal. Izena aldez aurretik eman beharra dago. Sarrera 20 euro da –afaria + tailer -dantzaldia–. Dantzan eskarmentua dutenendako da.



ELGETAKO MUSIKARIAK

## Eibarren kalez kale kantuan

**Aurreko barikuan, apirilak 24, elgetar talde bat Eibarren izan zen kantuan. "Kalez kale ibili ginen kantuan. Abestu ondoren Eibarko Kantu Zaleak taldeko kideekin joan ginen afaltzera, eta, noski, kantuan jarraitzera. Hori bai umorea!", adierazi dute Elgetako Musikariak taldetik.**

**KOMUNITATEA GOIENA**
ELGETAKO MUSIKARIAK | ELGETA

LEINTZ GATZAGA

## Aurrerantzean, autobusa herrian geratzeko eskaera egin beharra dago

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzaga-Eskoriatza-Arrasate ibilbidea egiten duen autobus publikoa erabili gura duten gatzagarrek, oraingo asteko astelehenaz geroztik (apirilak 27), aldez aurretik eskaera egin beharko dute, erabiltzea komeni zaien zerbitzua udalerrian gera dadin. Orain arte, autobus guztiak geratu dira Leintz Gatzagan, zerbitzua probaldian zegoen bitartean.

**Ordu erdi lehenago**
Aurrerantzean, bada, telefonoz deitu beharra dago eskaera egiteko, honako bi zenbaki hauetako batera: 900 23 45 55 edo 900 12 14 00. Hori egin beharra dago norberak erabili gura duen zerbitzuaren irteera ordua baino 30 minutu lehenago, goizeko lehen orduko zerbitzuetan izan ezik. Horien kasuan, eta zehazki 07:30ak baino goizagoko zerbitzuak erabili nahi dituenak –06:40an Marisanetik ateratzen dena, Eskoriatzarako noranzkoan edo 07:10an Eskoriatzatik irteten dena Marisanerako noranzkoan– eskaera bezperan egin beharko du, 21:30ak baino lehen. Azken kasu horietan, Interneteko helbidera bidali behar dira eskaerak bideratzeko: *www.lurraldebus.eus.*

LEINTZ GATZAGA

## Memoria suspertzeko tailerra antolatu dute, maiatzetik ekainera bitartekoa

**U.M.** | LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 8an (egubakoitza) hasi eta ekainaren 26ra bitartean, memoria suspertu edo memoriaren gaineko lanketa egiteko tailerra antolatu du Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Asmoa da ostiralero lantzea gaia, arratsaldez, 18:00etan hasi eta 20:30ak bitartean; hogei orduko tailerra bete arte.

**Izen-ematea zabalik**
Ekimena memoriaren gainean kezka izan edo interesa duen edozeini zuzenduta dago, gazte zein nagusi izan, eta ez da ezer ordaindu behar. Hori bai, interesa duenak maiatzaren 4a aurretik (astelehena) eman behar du izena. Asko jota, hamabi lagunendako lekua dago. Udaletxean eman behar da izena.

FUTBOLA

# Oparirik egiteko ez daudenen arteko derbia domekan

Aloña ez dago Bergara bezain larri, baina etxeko lanak egiteke dituzte oraindik

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aloña Mendik (38) Bergara (29) hartuko du domekan; hala, liga amaierara etxeko lanak egiteke iritsi diren bi talderen arteko derbia izango da. Oñatikoak ez daude horren larri, garaipenen bat behar dute matematikoki mailari eusteko, baina atzealdekoen lehia gertutik jarraitzen dabiltza, nahiko *lasai*.

Bergara da lehia horretan bete-betean sartuta dabilena. Juanina Garairen mutilak jaitsiera postuetatik irten dira, baina oso-oso gertu dituzte orain momentuan zuloan dauden Zarautz (28) eta Usurbil (27), eta Azkoagaineko puntuak arnasa hartzea bezala behar dituzte (domeka, 16:30).

Bestalde, Antzuolak (23) joan den astean etxean berdindu izanak zaildu egin du berez zail zeukatena, baina Ostadarren zelaian *mirariaren* alde lehian jarraituko dute (domeka, 10:30). Eta Aretxabaleta (60) dagoeneko Hirugarren Mailara igotzeko *playoff*-etan pentsatzen dabil. Badaezpada, Jose Javier Barkerori fitxa egin diote, dena beharko dute-eta. Domekan Elgoibar hartuko dute, zazpigarren dagoen taldea (16:30).

**Mondra Mutriku estutzen**

Erregional Preferentean, ligako bigarren postuagatik lehian Mondrak beste puntu bat *jan* dio Mutrikuri, eta orain lau puntura daude. Mutriku estutzen jarraitzeko Anaitasunari irabazi beharko diote zapatuan (Mojategi, 16:30).

IGERIKETA

# Iñaki Guridi, Oceanman proban irabazle masterretan

Oñatikoa hirugarren izan zen maila absolutuan eta Benidormen egingo duten finalerako sailkatu da

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan egin zuten Altean (Alacant) Oceanman izeneko igeriketa lasterketa –itsasoko zeharkaldiak egiten dituzte–. Hala, Aloña Mendiko igerilariak 3.500 metroko distantzian hartu zuen parte, eta sailkapen orokorrean hirugarren izateaz batera masterretan lehenengoa izan zen (30-39 urte artean). Horri esker, Oñatikoa urrian jokatuko den Oceanman zirkuituko finalerako sailkatu da; gainera, Europako txapelketa izango da.

**Itsasoa arriskutsu**

Oceanman barruan distantzia askotariko probak egon ziren, 10.000, 5.000 eta 1.500 metrokoak, eta guztira 550 parte-hartzaile baino gehiago egon ziren. Hala, Guridik 5.000 metrokoan hartu behar zuen esku, beste 300 lagunekin batera, baina itsasoa arriskutsu zegoelako lasterketako distantzia 3.500 metrora murriztea erabaki zuten antolatzaileek, eta oñatiarra hirugarren sailkatu zen, 26:48ko denbora eginda. Victor Benagues izan zen azkarrena (25:42) eta Jaime Marquesen bigarren (26:41).



Iñaki Guridi oñatiarra. | K.GURIDI

**Finalerako txartela eskuan**

Hala, Altean egindako lan onak saria izango du, finalerako txartela eskuratu du-eta –urriaren 25ean Benidormen–. Zirkuituko hurrengo hitzordua, baina, maiatzaren 26an izango da, Palamosen (Girona).

ATLETISMOA

# Madrildik helburua beteta itzuli dira ibarreko atletak

X.U. | ARRASATE

Oñatiko Antxintxiketan atletismo taldeak antolatuta, lagun kuadrilla politak asteburu-pasa ederra egin du Madrilen –hamalau joan ziren–. Hala, maratoian egindako esfortzutik errekuperatzen zebilela egin du berba Asier Osinagak GOIENArekin: "Ederto ibili gara. Marka pertsonalak alde batera utzita, oso positiboa izan da Madril moduko hiri baten lehiatzea. Helburu garbia zen kirola aitzakia moduan hartuta jendea taldera gerturatzea eta jende berria ezagutzea, eta bete dugu. Pentsa, hurrengo bidaia nora egin pentsatzen hasita gaude".

**Hainbat distantzia aukeran**

Denek ez zuten maratoia egin: "Oso zaila da maratoia egiteko hogei lagun batzea, eta horregatik aukeratu genuen Madril, hamar kilometroko lasterketa egiteko aukera ematen zuelako, edo maratoi erdia bestela". Hala, hiru lagunek egin zuten maratoia, beste hiruk hamar kilometrokoa eta gainerakoek maratoi erdia.

**Zirkuitu aldapatsua**

Osinagaren esanetan, Madrilgoa ez da markak egiteko zirkuiturik aproposena: "Aldapa askoko zirkuitua da. Maratoian, esaterako, oso zaila zen erritmoari eutsi ahal izatea, gorabeherek erritmoa apurtzen zutelako". Baina, orokorrean, denak geratu ziren egindako lanaz gustura, eta Osinagak Ritxar Fernandezek egindako lasterketa nabarmendu du, hamar kilometroko proban Oñatikoa zortzigarren izan zen-eta.



Madrilera joandako lagun taldea hotelean –ez daude denak. | ANTXINTXIKETAN


# Goiena Klubeko maiatzeko zozketak!

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**



**TELEBISTA**
Lg Telebista (32")

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarreren zozketa.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz




argia

**Jokoak**
**Ardibidez eta Kirolaz Badakit jokoak ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena: Argia




**Diska**
**Governors taldearen diska berria.**
Parte hartzeko sariaren izena: Governors

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!


Mikel Arexolaleiba jokoa antolatzen Valladoliden kontra. | GOIENA

SASKIBALOIA

# Partidu erabakigarria jokatuko du Mondragon Unibertsitateak bihar

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Akaso, denboraldiko lehiarik garrantzitsuena izango da. Bai, behintzat, urteko helburua betetzeko balio duena. Mondragon Unibertsitateak Pielagos taldearen kontra irabazten badu, EBA mailan geratuko da (zapatua, 19:00, Iturripe). "Gure esku dago maila mantentzea. Iturripen irabazi behar dugu, bai edo bai", esan du MUko ordezkari Juan Carlos Davilak.

Pielagos menderatuz gero, urteko etxeko-lanak eginda izango dituzte, baina, galduz gero, zer?: "Orduan matematikak egiten hasteko ordua izango da. Azken partidua Ardoiren kontra dugu Zizurren. Han irabazi eta gure aurkari zuzenen emaitzen zain geratu beharko genuke", diote. Hori horrela, etxekoa irabaztea ezinbestekoa da, eta zaleen laguntza eskatu dute. "Lehia gogorra izango da, Pielagos ere puntu beharrean dagoelako. Joaneko lehia irabazi egin genuen eta gai gara etxekoa irabazteko, baina horretarako jokoa hobetu beharko dugu", dio Davilak.

**Zortzi jarraian galduta**

Zortzi partidu jarraian galdu dituzte arrasatearrek, eta boladak txarra bukatu gura dute. "Saskiratzeetan asmatu behar dugu. Puntuekin eta zaleen babesarekin errazago izango da. Hil edo bizikoa da norgehiagoka", esan du Davilak.

FUTBOLA

## 'Geroa sortuz' futbol campusean izena emateko epea zabalik

Bosgarren urtez egingo du UDAk *Geroa sortuz* udako futbol campusa 2003 eta 2006 artean jaiotako neska-mutikoendako. Begirale adituek eta esperientziadunek gidatuko dute campusa, beste behin, eta ekintza mordoa iragarri dituzte: hainbat kirol jarduera eta Zubietara eta Anoetara irteerak, besteak beste. Izena emateko azken eguna maiatzaren 22a da. Bi txanda egingo dituzte: ekainaren 29tik uztailaren 3ra eta uztailaren 6tik 10era.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Ostadar-Antzuola
Domeka. 10:30. Lasarte.
Aretxabaleta-Elgoibar
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Soraluze-Aretxabaleta B
Egubakoitza. 10:45. Ezozia.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**
Easo-Bergara
Domeka. 16:30. Berio.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Arizmendi-Urki
Egubakoitza. 15:30. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aretxabaleta-Beasain
Zapatua. 17:45. Ibarra.
Bergara-Mondra
Domeka. 17:30. Agorrosin.

**GAZTEAK 1. MAILA**
Urnieta-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Urnieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA LIGA**
MU- Pielagos
Zapatua. 19:00. Iturripe.

**ESKUBALOIA**

**ESTATUKO 1. MAILA**
Ford Mugarri-Egia

ESKUBALOIA

## Egiaren kontra jokatuko du Ford Mugarrik ligako azken partidua

Ford Mugarrik Musakolan bukatuko du Lehen Nazional Mailako liga txapelketa Egiaren kontra (zapatua, 18:00). Hirugarren postuan bukatu ahal izateko puntu baten beharra dute arrasatearrek. "Zaila izango dela badakigu, baina, etxean jokatuta eta hirugarren lekua eskura izanda, ahalegin berezia egin beharko dugu", dio Pablo Gartzia entrenatzaileak.

Liga txapelketa bukatu ostean, Kopa txapelketa hasiko dute arrasatearrek.

ESKUBALOIA

## Soraluze Bergarak Euskadiko Txapelketan jarraituko du

Liga amaitzeko jardunaldi gutxiren faltan Bergarako eskubaloi taldearen egoera ez zen lasai egoteko modukoa, baina bidea zuzentzea lortu dute azken partiduetan. Besteak beste, Egiaren, Escolapiosen eta Siglo XX taldearen kontra lortutako garaipen garrantzitsuei esker sailkapeneko zazpigarren postuan amaitu dute txapelketa.

Hala, datorren denboraldian ere Euskadiko Txapelketan jarraituko du Josetxo Muniategiren taldeak.

ARETO FUTBOLA

## Ibarreko areto futbol taldeak mailaz igotzeko lehian daude

Debagoienako areto futbol talde nagusiak kategoriaz igotzeko lehian dabiltza. Euskadiko Txapelketan Eskoriatzak aukera ederra galdu du laugarren sailkatu eta igotzeko aukera errealak izateko.

Gipuzkoako Lehenengo Mailan Aretxabaleta bigarren dago sailkapenean eta igoerako kanporaketa partidua jokatuko dute. Eta Bigarren Mailan liga irabazteko zorian dago Mondrate.

Hiru taldeek atsedena dute aste bukaeran.



# Mendia, pantaila handian ere gozagarri

- Mendi Tour jaialdia martitzenean Amaia antzokian
- Eskaladari eta eskiari buruzko filmak erakusgai

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Mendizaleentzako eta zinezaleentzako proposamena da maiatzaren 5ean, martitzena, Amaia antzokian 19:30ean erakutsiko duten Mendi Tour. "Bilboko Mendi Film jaialdiaren ondorioa dela esan genezake. Abenduan egiten dugun nazioarteko zine jaialdian saritutako lanak ikusteko aukera ematen du Mendi Tourrek. Urte osoko lana eskatzen du hamar eguneko jaialdia prestatzeak, eta horregatik, bada, emanaldiak jaialdira mugatu beharrean, egindako lana aprobetxatzeko Euskal Herriko hamabi herritan erakutsiko ditugu aurten mendiko kirolak oinarri dituzten filmak", dio Jabi Baraiazarrak, Mendi Film jaialdiko zuzendariak.

Laugarrenez dator Arrasatera, Udalarekin eta Besaide mendi elkartearekin elkarlanean: "Herri bakoitzari bere ezaugarrien eta zaletasunen arabera egindako filmen zerrenda eskaintzen diogu, eta gero, bertako antolatzaileek aukeratzen dituzte zeintzuk erakutsi. Arrasatekoak eskaladari eta eskiari buruzkoak dira".



MENDI FILM FESTIVAL

**'VALLEY UPRISING'** 98 minutu dituen film estatubatuarrak Yosemiteko haranean egindako eskalada baten historia kontatzen du.



MENDI FILM FESTIVAL

**'ICEFALL'** Norvegian Europako eskalatzaile onenekin gauez grabatutako ur-jauzietako izotz eskaladari buruzko lau minutuko film laburra da.



MENDI FILM FESTIVAL

**'AFTERGLOW'** Alaskan eta Kanadan munduko eskiatzaile onenekin gauez filmatutako hamabi minutuko film labur ikusgarria.

### Film luze bat eta bi labur

Jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin erakutsiko dituzte Amaia antzokian *Valley Uprising* film luzea eta *Icefall* eta *Afterglow* film laburrak. "Jaialdiko sari nagusia eta ikusleen saria irabazi zituen film luzeak Yosemite bailara ospetsuan grabatutako istorio indartsua kontatzen du. Yosemiteko haranean egindako eskalada baten historia kontatzen du narrazio trebe baten bitartez, sekuentziak artxiboko irudiekin eta eskalatzaile handien elkarrizketekin nahastuta. Horrez gainera, AEBetako kontrakulturaren historiako pasarte garrantzitsuenak eta garai hartako arazo politiko eta sozialak ere aipatzen ditu. Film aparta da, zentzu guztietan; dibertigarria eta erabat entretenigarria da hasieratik bukaerara. Hiru aro ezberdinetan banatuta, 60 urtetako historia jasotzen du. Behin ikusita ikuslea ez da aseta geratuko, eta gertatzen ari da jendea Mendi Tour batetik bestera dabilela pelikula hori berriz ikustearren".

Erakutsiko dituzten film laburrak ere itzelak direla aitortzen du Baraiazarrak: "Biak ala biak zoragarriak dira estetika aldetik, eta baita erakusten duten goi mailako kirol jarduerengatik ere. Izenburuak adierazten duen moduan, izoztutako ur-jauzietako eskalada du oinarri *Icefall*-ek. Norvegian eta gauez filmatutakoa da, eta azaltzen diren ekintza guztiak era liluragarrian artifizialki argiztatutakoak dira. Protagonistak izen handiko eskalatzaile ikaragarriak dira, Europako izotz eskaladan trebeenetakoak: Dani Arnold, Stefan Siegrist eta Aljaz Anderle, horien artean. Izotz eskalada eta estetika hutsa maite dutenentzat aproposa; iraupenari dagokionez, laburra baina oso intentsua".

Eskiari buruzkoa da Alaskan eta Kanadan, hori ere gauez filmatutakoa, erakutsiko duten hirugarrena: *Afterglow*. "Misterioa eta eski akrobatikoan munduan dauden lau izar garrantzitsuenak dira filmaren osagaiak. Hamabi minutu bakarrik dituen arren, sei aste behar izan zituzten mimo handiarekin eta goi mailako teknikarekin filmatzeko".

# Pako Aristi, Arrasate Literatur Lehiaketetako aurtengo gonbidatua

Maiatzaren 13an Kulturateko Loramendi gelan banatuko dituzte aurtengo edizioko 24 sariak

**KOMUNITATEA GOIENA** | AED ELKARTEA | ARRASATE

Martxoaren 14an bukatu zen AED elkartearen Arrasate Literatur lehiaketetara aurkezteko epea eta jasotako lanak epaimahaiaren esku daude honenbestez. 24 sari banatuko ditugu eta irabazleen izenak maiatzaren 13an jakinaraziko ditugu, Kulturateko Loramendi gelan izango den eta aurten gonbidatu berezi Urrestillako (Azpeitia) Pako Aristi idazlea izango duen sari-banaketa ekitaldian.

### Aurten, guztira, 127 lan

28. edizioan 127 lan aurkeztu dira, denera; gehienak Arrasateko bertako ikastetxeetako ikasleek sorturikoak dira. Generoka, ipuinen atalerako jaso da aurten ere idazlan kopururik handiena: 59 lan, hain zuzen ere. Dena dela, poesia eta bertso-paper atalekiko aldea beste urte batzuetan baino txikiagoa izan da; izan ere, 33 dira aurkeztutako poesiak eta 35, berriz, bertso-paper lanak.

Ezin bukatu aipatu gabe sariok emateko epaimahai-lanetan ari diren lagunak: Arizmendi Ikastolako, Arrasate Institutuko eta Arrasate Herri Eskolako irakasleak, Gaztetxeko Bertso Eskolako kideak eta AEDko bazkide, literatura eta bertso zaleak. Eskerrik asko eta bejondeizuela denoi!



Iazko edizioko saridunak. | AED

# 'Egubakoitzak teilatupian' ekimena Bergarako gaztetxean

**A. A** | BERGARA

*Egubakoitzak kartzelan* egitasmoaren bost edizio arrakastatsuen ostean, gaztetxeko kideek pauso bat gehiago eman gura dute, orain arte musika oinarri izan duen egitarauan askotariko diziplinei lekua eginda.

Datorren astean estreinatuko dute *Egubakoitzak teilatupian,* eta, orain arte moduan, Kartzela Zaharreko patioa kandelekin eta faroltxoekin apainduko dute. Gaztetxean bakarrizketa saioak egin izan dituen Aitor Navarrok zuzentzen duen DKdencias taldeak zabalduko du egitaraua. "Lan berria da; ez da, baina, umorezkoa. Hurrengoan, argazkigintza, literatura eta musika uztartzen dituen ikuskizuna izango dugu hasteko, eta film laburren emanaldia ondoren. Hirugarrenean, herriko jaiak izango direnez, salto egingo dugu, eta azkenekoan, Txapa Irratiak antolatu duen helduentzako ipuin saioa egingo du Amaia Arriaran bergararrak. 22:00etan eta hiru euroren truke izango dira guztiak", azaldu du Ainhoa Narbaitzak, gaztetxeko kideak, eta zera gaineratu: "Ekainean hamabosgarren urteurrena ospatuko dugu, eta motorrak berotzeko datoz maiatzerako antolatutakoak. Askotariko eragileekin egitarau oparoa ari gara prestatzen".

## EGITARAUA

**MAIATZAK 8**

**22:00** *La maceta, bombones y el figurante* antzerkia.

**MAIATZAK 15**

**22:00** *Hiri asko bere baitan* ikuskizuna. Ondoren, film laburrak.

**MAIATZAK 29**

**22:00** *Marilinda y Cía. Mujeres con historia* ipuin kontaketa.




Euspot lehiaketaren antolatzaileak: Udala, Arteman eta MU. | ARTEMAN KOMUNIKAZIOAK

# Euspot lehiaketako 35 lanik onenen artean aukeratuko dute eguenean

Sari banaketa ekitaldia 19:00etan da Aretxabaletako Arkupe kultur etxean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Datorren eguenean, maiatzak 7, 35 spot izango dira nor baino nor gehiago Aretxabaletako Arkupe aretoan (19:00). Euspot euskarazko spot lehiaketaren sariak banatuko dituzte, orain arteko ediziorik arrakastatsuenean, hain zuzen.

Euskarazko sormena bultzatu eta publizitate arloan euskararen erabilera hedatzeko helburuarekin antolatu dute lehiaketa, beste behin, Aretxabaletako Udalak, Mondragon Unibertsitateak eta Arteman Komunikazioak. *Autoak eta pertsonak, elkarbizitza orekatua* izan dute gai aurten eta buruari eragin eta sormena lanean jarrita iragarki guztiz ezberdinak jaso dituzte –guztiak daude ikusteko Youtuben.

**2.500 boto Internet bidez**

Spot lehiaketa kontsolidatzea eta euskararen panoraman erreferentziazkoa bilakatzea izan dute helburu antolatzaileek, baita lortu ere: "Azken bi urteotan 22 lan jaso ditugu; aurten, ostera, 35; hortaz, helburua bete dugula esan genezake", dio Artemaneko Gorka Zubizarretak.

Lau sari banatuko dituzte eguenean. Spot onenak 1.000 euro jasoko ditu; publikoaren sariak, 500 euro; MUko ikasleen spot onenak, 500 euro; eta gazteen sariak –14 eta 18 urte artekoek egindakoa–, 250 euro. "Hain zuzen, gazteen lanek egin dute gora nabarmen, hamahiru jaso ditugu", dio Zubizarretak, eta argitu du: "Horren arrazoia izan daiteke Artemaneko kideok hainbat ikastetxetan egon izana eskola batzuk ematen eta gazteak animatzen".

Helduen atalera aurkeztutako 22 lanak Euskal Herriko txoko askotatik jaso dituzte: Gernika, Andoain, Zumaia, Iruña... Eta guztiak bozkatu ahal izan dituzte ikusleek: "Internet bidez bozkatzeko aukera egon da eta sare sozialetan zeresan handia eman du. 2.500 boto jaso dituzte spotek, eta ez da egon faboritorik; pentsa, bozkatuenak 314 bakarrik jaso ditu", argitu du Zubizarretak.

Sari banaketa ekitaldia ere jendetsua izatea gurako lukete eta musikak girotuko duela jakinarazi dute. Irabazleen spotak gero sare sozialen bitartez zabalduko dituzte.

# Huhezinemako film onenek sariak jasoko dituzte gaur

Aretxabaletako Arkupen egingo dute ekitaldia 20:30ean eta aurretik filmak emango dituzte

M.A. | ARETXABALETA

*Zinema ziztadak* leloarekin dabiltza ospatzen Huhezinema film laburren jaialdia azken bi egunotan Aretxabaletan, eta gaur bukatuko dute, sail ofizialeko sari banaketa ekitaldia eginda (20:30).

**Finalean debagoiendar bat**

Sailkatutako filmak hamar dira. Hona: *A serious comedy* (Lander Camarero); *Don Miguel* (Kote Camacho); *El buen mal* (Jokin Urrutikoetxea); *Mamma, please forgive me* (Ibai Vigil-Escalera); *Ordu erdi* (Unai Garate); *Oscar desafinado-Tunning Oscar* (Mikel Alvariño); *Otsoko* (Ander Iriarte); *Tempo Inverso* (Gregorio Muro-Mikel Muro); *Yayos* (Roberto San Sebastian); *Zarautzen erosi zuen* (Aitor Arregi). Hain zuzen, Arregi da finalean dagoen debagoiendar bakarra.

Epaimahaia osatuko dute aditu hauek: Pello Gutierrez (zinemagilea eta ekoizlea); Lara Izagirre (Gariza Produkzioaken sortzailea); eta Ines Intxaustik (kazetaria). Sariak banatu aurretik, film guztiak emango dituzte gaur, Arkupen, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Finalista bakoitzak 200 euro jasoko ditu, eta sariak hauek izango dira: Goiena saria: 800 euro; ikusleen saria: 200 euro; eta aktore onena: 100 euro. Horiez gain, MU sariak eta BCC saria ere banatuko dituzte. Ekitaldia jai giroan bukatuko dute, 22:00etan, Aretxabaletako Orly tabernan, Los Galerna taldeak girotuta.

**Lan politak ikasleenak**

Martitzenaz geroztik dabiltza ospatzen Huhezinemaren zortzigarren edizioa. Atzo, Basque Culinary Center lehiaketako filmak eta MUko ikasleenak eman zituzten. "Maila benetan ona dute batzuek", dio Iban del Campok, MUko irakasleak eta antolatzaileak, eta gaineratu du: "Lehenengo mailako ikasleak hasiberriak dira oraindik, baina lan politak ikusi ditugu". Eta Gorka Cornejo zinema zuzendari eta gidoigileak musikak zineman duen garrantziaren gainean egin zien berba ikasleei.

## Miren Amuritza eta Maialen Lujanbio datoz Gatzagara maiatzaren 16ko bertso afaria girotzera

Punta-puntako bi emakume bertsolari datoz Leintz Gatzagara datorren maiatzaren 16an, zapatua, gatzagarrekin afaldu eta bertsotan jardutera: Miren Amuritza eta Maialen Lujanbio.

Gatzagako Korrika batzordeak antolatu duen ekitaldia da eta Soran Etxeko jatetxean egingo dute afaria. Korrika batzordeko kideek jakinarazi dute txartelak Labidea dendan salduko dituztela datozen egunotan, baina oraindik ez dute zehaztu zein izango den prezioa.

Itziar Bastarrika | Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldea

# "Lortu dugu jendeak argazkigintzaz gozatzea, eta oso pozik gaude"

Domekan bukatuko da Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeak antolatu duen ARG! Argazki Festibala



Itziar Bastarrika. | OÑATI

OIHANA ELORTZA GOROSTIZA | OÑATI

Argazkilaritzaz gozatzeko hainbat ekimen prestatu ditu Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeak hiru aste hauetan. Erakusketak, oraindik, zabalik daude. Domeka iluntzera arte ikus daitezke.

**Erakusketak ez ezik, baina, ikus-entzunezkoak eta ekitaldi bereziak ere antolatu dituzue. Ze harrera izan dute?**

Oso ona; batez ere, BookJockey eta estenopeika erraldoiaren saioak. Berezienak izan dira, eta jendearen harridura piztu dute. Oso pozik gaude.

**Argazkiak erakusketekin lotzeko joera hori apurtu duzue.**

Argazkigintzarekin ikastaroak edo erakusketak lotzea ohikoa da, bai. Baina argazkigintzaz gozatzeko beste modu batzuk ere badaude eta horiek erakusten saiatu gara.

**Oñatiko erretratu zahar eta berrien erakusketa gustukoa izan da.**

Bai. Duela bi urteko jaialdian ere egin genuen, unibertsitatean. Ez dakit zergatik, baina jendeari kosta egiten zaio erakusketetara joatea, eta edizio honetan pentsatu dugu kalera ateratzea lan hori. Hala, kalean jarri ditugu argazki zaharrak, erretratu horietan ikusten den herriko txokoaren ondoan. Unibertsitatean ere badaude batzuk ikusgai, baina kalekoek joko polita eman dute. Sekulakoa izan da gaztetxoak argazki horien gainean jolasten ikustea, adibidez, eta adineko jendea lehengo oroitzapenei buruz berba egiten ikustea.

**Ilunpetan taldeaz gain parte hartu duten beste argazkilari guztiak emakumezkoak izan dira. Hori ez da kasualitatea, ezta?**

Ez, ez. Hori horrela izateko ere indar handia jarri dugu.

**Hala ere, ez duzue hori nabarmendu gura izan. Zergatik?**

Egitarauan agerian zeuden argazkilarien izenak, bistan. Guk pilota bota dugu, gura duenak jaso dezan, baina ez genuen gura horri aparteko protagonismorik ematea. Era berean, baina, garbi gelditu da argazkigintzan emakumeak ere aritzen direla, eta indartsu, gainera.

**Helburuak beteta?**

Bai, bai. Gure helburua zen argazkigintzaz gozatzeko egitaraua prestatzea, eta lortu dugu. Jende askok hartu du parte ekitaldietan eta zorionak ematera ere herritar asko etorri zaigu.

**Hirugarren jaialdia martxan jartzeko gogoz, orduan?**

Lehenengotik bigarrenera aldaketa handia ikusi dugu eta izan duen harrera ona ikusita hirugarrena prestatzeko gogoa badugu, bai. Hala ere, poliki-poliki joango gara hori martxan jartzen. Bizpahiru hilabeteko atsedena hartuko dugu lehenengo, eta gero hasiko gara lanak ikusi, artistak ezagutu, kontaktuak egin eta bestelako lanak egiten. Denbora behar izaten da antolatzeko; horregatik, hasieratik pentsatu genuen bi urtean behin egitea.

**Bitartean, baina, jarraituko duzue ohiko eskaintza ematen, ezta?**

Hastapeneko argazkigintza ikastaroa prest dugu, adibidez; norberak etxean duen argazki kamera nola dabilen ulertu eta hobeto erabiltzen ikasteko ikastaroa da. Azalpen eta oinarri teknikoaz gain, irudien konposizioa ere landuko dugu. Gainera, badugu asmoa irteerak antolatzeko ere, argazki kamerarekin; argazkigintza eta aisialdia lotzeko beste modu bat da. Interesa duen edonor jar daiteke harremanetan gurekin: *ilunpetan@gmail.com*.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Santo Domingo de la Calzada.** Etxebizitza ematen da errentan, udarako edo ikasturterako. San Inazio konplexuan, eraikin berdean. Hiru logela. Berritua. 645 71 68 47 edo urrubiz@hotmail.com

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko genuke Arrasaten. Hiru logela eta igogailua behar ditugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 05 89 13

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 602 17 02 51 edo 602 03 33 56

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** 30 urte inguruko hiru gazte langile gara eta logela bat daukagu errentan emateko lau gelako duplex batean, Uribe auzoan. Alokairuaren prezioa 210 euro dira, gastu guztiak barne: argia, ura, berokuntza, interneta, garbiketa eta abar. Interesatuok deitu eta etorri etxea ikustera. Maider: 679844920 edo Orkatz: 677448285

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Ikasle edo langileendako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 88 60 30

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 627 24 62 76 edo 691 28 53 25

**Logela bila Oñatin.** Oñatin logela bila nabilen neska arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 64 19 25

## 2. GARAJEAK

### 204. ERRENTAN HARTU

**Santa Marina.** Santa Marina auzoan garaje itxia hartuko nuke errentan. Zure garajea errentan eman gura baduzu, mesedez, jarri nirekin harremanetan. 686 62 66 24

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Esperientzia duen mutil euskalduna behar dugu pertsona nagusi bati laguntzeko. Gidabaimenarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 34 92 27

**Arrasate.** Gizon jator eta euskalduna behar da, etxean bertan bizi izaten, pertsona adindun bat zaintzeko domeka arratsaldetik egubakoitz goizera arte. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 619 18 12 81 edo 676 64 10 22

**Bergara.** Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 08:00etatik 14:00etara. Kontratuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 73 12 56

**Zaintzailea.** Legazpin pertsona nagusien zaintzaile bat, etxeko lanak egin eta menpekotasuna duen pertsonekin esperientzia duen emakume bat, behar da. 35-55 urte bitartekoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 26 71 53

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska lan bila. Nagusi eta umeak zaintzen, ostalaritzako garbiketan, sukalde laguntzaile edota tailerrean lan egindakoa naiz. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Berdin zait orduka, egun erdiz, gauez zein asteburuetan bada ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 05 30 57

**Bergara eta Arrasate.** Neska lanetako gertu: umeak zaintzen edota fruta-denda eta arropa -dendan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 34 31 43

**Bergara.** Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Asteburuetan edo arratsaldetan lan egingo nuke. Nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 99 70 46

**Debagoiena.** Banaketa lanak egiteko gertu. Baita atari eta abarren garbiketak ere. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Baserrian lan egingo nuke, bai nekazal lanetan eta baita nagusiak zaintzen ere. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 59 40 66

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu dago: etxeetan, atarietan eta abarrak. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Eraikuntzan, margotze lanetan, animaliak zaintzen eta bestelako lanetan arituko nintzateke. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 53 77 63

**Debagoiena.** Esperientzia handiko mutila nagusiak zaintzeko gertu. Sukalde laguntzaile ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 74 94 63

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izanda lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta etxeko lanak egiten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 18 81 86

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Esperientziaduna eta paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 12 61 44

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka lan egingo nuke zaintza lanetan. Zazpi urteko esperientzia eta erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 14 27 02

**Debagoiena.** Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 86 49 00

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu. Etxe, atari eta abarren garbiketan edo bestelako edozein lan egingo nuke. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, ikasketa eta eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Etxean, ospitalean zein egoitzatan. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 54 90 49

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo elkarte eta abarren garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 63 21 99

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Bai etxeko laguntzan eta baita soldatzaile edota lantegian ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 29 17 58

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko garbitasunak egiten edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 87 22 46

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: tabernan, sukaldean, garbiketan, ume eta nagusiak zaintzen eta abar. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako gertu. Zerbitzari eta nagusi edo umeak zainduko nituzke. Lege-paperak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 05 94 53

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak etxean zaindu edota orduka paseoan laguntzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak etxean zaindu edota orduka paseoan laguntzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska gertu zaintza lanetan aritzeko. Gauez edo egunez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 58 71 61

**Debagoiena.** Orduka edo egun osoz lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 86 48 91

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 44 70 38

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, astean zehar 14:00etatik aurrera, zapatutan egun osoz eta domekatan 12:00etatik aurrera. Sukaldean ere ondo moldatzen naiz eta etxean zein tabernan lan egin dezaket. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 12 18 27

**Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate.** Emakumea gertu astelehenetik ostiralera edo aste bukaeratan lan egiteko nagusiak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Etxean bertan geratzeko ere gertu edo orduka lan egin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 13 02 48

**Haurrak zaindu.** Emakume euskalduna haurrak zaintzeko prest. Euskaraz, gazteleraz edo alemanez hitz egingo diet (jolasak, abestiak, ipuinak). Esperientziaduna. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 72 64 43

### 403. BESTELAKOAK

**Baserriko lanak erdibana.** Oñatiko baserri baten bertako lanetan laguntzeko norbait behar da. Ez da ordainduko. Irabaziak eta ekoizpenak erdibanatuko lirateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 50 88 92

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Elektromekanika.** Autoen elektromekanika moduloko Fluido eta Zirkuitu elektrikoen ikasgaietan eskolak emango dizkigun norbait behar dugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 94 90 01

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa.** Bizikleta estatikoa erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Erremolkea.** Toldodun erremolkea erosiko nuke autoarentzat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 06 23 95 . Iñaki.

### 805. TRUKATU

**Lursaila mantenu truke.** Arrasaten, Garagartza-Gesalibar inguruan, zaldientzako lursail bila gabiltza. Trukean lursailaren mantenuaz eta garbiketaz arduratuko ginateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 41 66 24 edo 648 19 23 93

### 806. GALDU

**Argazki kamerako SD txartela.** Argazki kamerako SD txartela galdu dut Bergaran, Poligono inguruan, apirilaren 17an. Inork aurkitu badu, deitu, mesedez, zenbaki hauetara:. 680 20 57 24 edo 943 76 05 54

